

bat

2003ko OTSAILA,
108. ZENB. DOHAINIK

Egunkaria

OSTEGUNA

2003ko otsailaren 20a - XIV. urtea - 3.765. zenbakia - Salneurria: 0,80 euro

halka
Sareko telefonoak
Jerdiko orrialdeetan

POLIZI OPERAZIOAK

Espainiako Poliziak 14 pertsona atxilotu ditu, eta 18 etxe arakatu

OPERAZIO ZABALA. Gipuzkoan bost lagun atxilotu dituzte. Nafarroan lau, Bizkaietan hiru eta Araban bi. Baltasar Garçon epaileak agindutako operazioan.

AKUSAZIOA. «ET Aren zuzendaritza berriaren laguntzaile taldea» osatzea leporatu die atxilotuei Espainiako Barne ministro Angel Acebesek.

ERTZAINTZAREN OPERAZIOA. Herenegun atxilotutako hiru adingabeoketarik bi preso sartu dituzte Madrilen, eta Balzak esan du inkomunikazioa «ezinbesteko tresna» dela. 16-8

ALDEARI POLIZIEN LEBEA

Jimenez de Pargaren errefusatzeari atzera bota du Auzitegi Konstituzionalak. 16-8

Egunero

Asteartea, 2003ko otsailaren 25a - I. urtea - 4. zenbakia

Salneurria: 0,80 euro

Torturatu egin dituzte





baleike



Ezer baino lehen, Baleike aldizkaria egiten dugun guztion izenean elkartasuna adierazi nahi diegu Egunkariako lankideei. Baita atxilotuei eta familiartekoei ere. Eutsi goiari!!

Espainiar faxismoak berriro ere euskaldunon aurka jo du. Guardia Zibilen gezurretan oinarrituta Euskaldunon Egunkaria itxi, hamar euskaltzale atxilotu eta torturatu, ehun eta berrogeita hamar langile kale gorrian utzi, eta euskaldunon arimaren sua den euskara itzali nahi izan dute. Berriro ere.

Beraientzat sakratua den adierazpen askatasuna kendu digute. Beste behin. Euskaldunok triste gaude. Amorrizata. Babesik gabe gaude faxismoaren mehatxuaren azpian. Hurrengo eraso edonori egin diezaiokete. Euskalduna izatea eta euskaldun bizi nahi izateko eskubidea ukatzen digu Espainiako estatu frankistak.

Iluntasunetik argira joan behar dugu, hala ere. Ezinbestekoa da. Tristura, amorrazio eta babesik ezak indartsu egin behar gaitu. Etorkizuna geure egin behar dugu. Ezin gaitzke hurrengo erasoaren zain egon. Pausoa euskaldunok luzatu behar dugu. Bat egiteko garaia da. Konpromisoen

garaia. Batzen gaituenean oinarrituta, desberdintasun politikoak baztertu. Gela ilun eta itxi batean gorde. Betirako. Euskaldunak gara. Euskarak egiten gaitu euskaldun. Euskararen inguruan konpromiso sendoa egin behar dugu. Bat egin. Eta aurrera jo!! Agintarien lana ezinbestekoa izango da. Baina ezin gaitzke agintarien zain egon. Ezta alderdi politikoen esperoan ere. Herriak mugitu behar du. Zuk eta aldamenekoak. Guk. Hasteko euskarazko egunkaria egin behar dugu. Itxi digutena irekitzen uzten ez badigute, beste bat egin

behar dugu. Horixe da lehenengo lana. Ondoren euskara, euskal kultura, euskalduntasuna babesteko hormak eraiki beharko dira. Ez daitezen pasa!! Gurea dena babesteko konpromisoak beharko dira. Euskaldun guztionak. **DESBERDINTASUNAK BAZTERTU ETA DENOK BATERA AURRERA!!** **EGUNKARIA AURRERA!!** **EUSKARA AURRERA!!** **EUSKARAREN HERRIA AURRERA!!**

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberría
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

TXAPAPOTEA "BIHAR ETA BERANDU". KOSTA GARBI BATEN ALDE

ZUMAIAKO NATUR TALDEA

HILABETE BAT BAINO gehiago pasatu da lehenengo galipot zipriztinak gure kostaldera heldu zirenetik, eta gaur egun oraindik heltzen jarraitzen du. Leku batzuetan fuel kopurua nabarmena da, eta komunikabideen bitartez, Itzurrun hondartza hainbat aldiz agertu zaigu Euskal Herriko kostaldeko leku kaltetuenetako bat bezala. Gure itsasontziek itsasoan jo eta ke dihardute fuela jasotzen, berdelaren kanpaina popatik doan bitartean. Eta lehorrean? Zer gertatzen da?

Gure agintariak plaieroetako talde makala direla erakutsi digute, astiro-astiro mugitzen ari baitira pilota eta partida duela hilabete bat hasi zelarik.

Soilik hondartzak garbitzen dituztela ikusten ari gara, Zumaia eta Deba arteko itsaslabarraren eremu aberatsa ahanzturaren bidera doan bitartean. 9 kilometrotik 1 bakarrik garbitzen da.

Hiltegi zaharra itsaslabarraren erakustokia bihurtzen denerako, nola egongo dira arraldeko haitzak? Turismo kanpaina famatu hartan bezala, zoaz eta konta ezazu.

Zumaia Natur Taldeko kideek, egoera horretaz jabeturik, miaketa bat egin genuen Aitzgorritik Sakonetaraino otsailaren lean. Hurrengo egunean, berriz bildurik, Sakonetako hondartzan aritu ginen ditxosozko txapapotea kentzen, materiala eta erropa guk jarrita gero, gure eskaerak ezinezkoaren zakuan erorita.

Otsailaren 23an, igandean, berriz abiatu ginen Elorriaga azpiko arraldera, 60 lagunengatik laguntzarekin. Materiala, oraingoan ere, gure esku.

Egun horretan fuela harriarekin nahastuta agertzen zen, azkeneko egunean baino gogorragoa, eta kendu ahal izateko, harriak altxatzen ibili behar izan genuen.

Euskal Herriko beste hainbat taldek ere, antzerako ekintzen bidez, adimintrazioaren itxurakeria salatu nahi izan zuten.

Izan ere, zertarako zabaldu ziren boluntarioen zerrenda haiek? Eta, garrantzitsuena, zergatik diote boluntarioak ez direla beharrezkoak?

Geurea ala denona



Josefran Ispizua

DUELA URTE gutxi batzuk Telefonikako gutun batean bezeroarekiko harreman guztiak (erantzungailua barne) euskara hutsez egiteko aukera eskaini zitzaigun? Hara! Ari dituk hor ere gauzak normalizatzen? neure artean pentsatu, sinatu eta pozik bidali nuen gutuna atzera. Pozik ere, hurrengo faktura euskara hutsez etorri zitzaidan eta nonbait halako tratu abegikorra jasotzeko ohiturarik ez eta, pribilegiozko harrokeria anormala sentitu nuen. Sinetsi ezinik, Euskaltelen aurkako marketina zela erabaki zuen neure kritika sasi intelektualak. Euskararen berripaperean ere urrats berria goraipatuta Iberdrolak eta besteek jokabide bera hartu zuten. Gogora etorri zitzaidan hamarkada pare bat lehenago elebitasuna militante batzuen ordaindu gabeko fakturei esker lortu zela.

XX. mendearen berezitasuna diglosia (gauza batzuk hizkuntza batean eta gainontzekoak bestean) gainditu nahi izatea eta normalizazioaren aldeko apustua bada, egia ote zen soziolinguistikan hainbestetan aipatutako eremu elebakarraren beharra estatu mailako enpresek bultzatzea? Bertako gehienek (euskaldunak barne) oraindik normalizazioa barneratu gabeko garaian gainera?

Berehala konturatu nintzen, bai, gaur egungo teknokratek asko pentsatzen dutela, eta zaharrak berri, sentimentalki jokatzeko ere haien aldekoa zela. Izan ere, ingelesa, valentziera eta beste auken artean zenbatek egin genuen euskararen aldeko keinua? Halakorik egin ez zuten guztiei (zenbat eta zenbat gehiago?), hainbat urtetako komunikazio elebidunen ondoren, euskararen presentzia kendu egin zitzairen, aurreko garai glorioso haien antzera, gaztelania hutsaren aldeko keinurik eskatu gabe. Euskara berexi batzuentzat izanik, zertarako elebitasuna gaztelania denona bada??

Berriro modan dagoen panhispanismo kontziente ala inkontzientearen garai honetan behin eta berriro temoso izatea eskatzen zaigu. Elebitasuna normalizazioaren aurreko pausoa bada, militantzia haren aurrekoa dugu (helburua inoiz ez). Beraz, honaino irakurtzeko gauza izan bazara, iruditzen zait baduzula zer pentsatua egin ahal dituzun keinu guztiez. Denona behar lukeen altxorra oraindik zure esku dago.

LURRA

ZUMAIAKO NATUR TALDEA

LURRA! OIHUKATZEN zuten euskal marinelek ludiaren beste aldeko lurretara heltzen zirenean. Lurra! aldarrikatzen dute Brasilgo MST-ko nekazariak. Lurra! eta askatasuna eskatzen dute zapatistek Lakandonako oihanetik, eta Lurra! eskatzen dugu gutako askok zementuak eta asfaltoak irentsi baino lehen.

Lurra desagertzen ari da Euskal Herrian, ura eskuen artetik bezala. Lur emankorra azpiegitura handiko egiturek bortxatua. Gure itsas bazterreko lurra galipotak eta superportuek zauritua. Padurak kirol

portuen eraginez desagertaraziak. Industrializazio basati eta geldiezin galdutako lurra.

Mundua eta mendiaren uniformizazioak baserrien lurraz kenarazi ditu txaletak eta aparkalekuak egiteko. Pinu insignis-aren ekoizpena agintari bihurtu da gure lurrean. Aurrerapena eta teknologiaren izenean aberastasun ekonomikoa; eta kontsumoa bizitzak kalitatearen izenean.

Galdutako zenbat denbora bizitzan zehar...

"Neukan guztia zen amets bat, amets baat..."



Miriam Romatet

AKATSIK GABEKORIK ez omen dago. Nik baditut gutxi batzuk; haundi bat: gauero eguneko lanak bukatu (edo) eta gero, etxeko sofán manta-azpian esertzen naiz, eta telebistan dagoen ia-edozer irensteko gai naiz, batik bat pelikula itxura badu. Burua balantzaka dudala orduak eman, eta halako batean nire buruarekin hase-rreru eta ohera. Pentsatuko duzuenez, era eta maila guztietako pelikulak ikusten ditut, gehienak txarrak eta batzuk penagarriak.

Gau hauetako batean Demi Moore gorrotagarriaren film bat ikusi nuen (ezin amaierara iritsi), non emakume batek bi bizitza zituen, eta bien arteko muga oheratzean zegoen: lo hartzean bere bizitzarekin zerikusirik ez zuen beste pertsonaia bat bilakatzen zen, gauero-gauero, eta ez zegoen argi zein zen bizitza erreala, bi pertsonaiek beren alderdi ezkutua amets gisa ikusten baitzuten.

Halako zerbait, eta esan dudán bezala, ez dakit zein irtenbide eman zioten argumentu xeble honi.

Dena den, nik ia bizitza osoan izan dudán mekanismo bat islatzen du honek, lotaratu baino lehen beste errealtate bat fabrikatzea.

Nere beste nia neu izan ohi naiz, baina nola esan..., Corporación Dermoesética-tik pasa eta gero, glamour-ez blai. Argumen-tua berriz asko aldatu da urteetan zehar, baita beste pertsonaia ere: George Clooneyrekin santelmoetan egon ninteke; edo azkena irakurritako liburua birmoldatzen aritu, ni beti protagonista iza-

nik, noski; gehienetan, eta, San Valentin eguna pasa berria dugu-nez, aitortu behar dut, Corin Telladoren idatziak baino txoro eta arroxagoak asmatzen nituen.

Horrelako pelikulek astebetetxo bat edo ematen zidaten, egu-nez etena egin eta gauero birrasmatur; horrela, 15-25 urte bitarte-an edo, ametsen ekoizle oparoa izan nintzen, "escapismoa" agian, izaera axalaren erakuslea beharbada, egunerokotasunetik ihesteko, xarmaren bila aritzeko bide inozo bat baino ez azken finean.

Dena den, pelikula generoa errealistagoa bihurtzen joan da urteen poderioz; orain, eta ez noa nire adina aitortzera, ametsak nahiko rekurrenteak dira: inoiz erosten ez dudán loteria tokatzen zaidanean dirua nola erabiliko dudán, munduko zein muturrerai-no iritsiko naizen, (behin, bene-benetan, aste oso bat pasa nuen gauro inbertsio planak egiten); baita, Larramendi etxea majiaz eskuratzen dudanean nola antolatuko dudán eta nere "cortijo"tik bizitza nola gozatuko dudán; eta beste amets batzuk ere, baina ez noa dena esatera.

Tira, ziur nago zuetako askok gauza bera egiten duzuela, eta hala ez bada, egin ezazue aproba lokartu ezinik zabiltzaten haue-tako batean.

Marrubizko eta txokolatezko ametsak guztientzat!



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Napoleonek ere almorranak izan



Ixiar Eizagirre

Napoleon Bonaparte enperadorea zaldi gainean trostan agertzen zitzaidan institutuko arbelean, historiako irakasleak azalpen "labur-laburrean" (hala zioen berak) bi ordu zeramatzanean. Zimurrik gabeko trajearekin imajinatzen nuen, hain galai, gandor tente

eta ausart; batez ere ausart, gillotinak buruak "lepazurtz" nola uzten zituen betazalik kliskatu gabe ikusteko bezain ausart.

Baina zer diren kontuak: historiako letra txikitak eskribau "traidoreren" batek jarritakoari esker, gaur jakin dut benetako Napoleon zaldiz behintzat ez litzaidakeela arbelera etorriko. Bonapartek parte onik ez izan atzean, eta almorranak zituenez, zaldia pinturan ikustea nahiago hark, ipurdi azpian baino. Gillotina espektakulu nazional bihurtu zuen hura, gainera, zer eta katuen beldur zen!

Historiako enperadoreak iraultza bat eta hiru irakaspen utzi dizkigu behintzat: ahalsuenak ere puntu ahulak dituela, ausartena ere beti dela zerbaiten beldur, eta, batez ere, imajinatutakoa askoz hobea dela errealitatea baino.

Zumaia ere herri indartsua eta bizia da: kirol taldeak, artistak, bertsolariak, musikariak, korua, elkarteak... Udako "turixton" begitan Napoleonen galoiek baino distira gehiago du. Baina Zumaia ere almorranarik edo fobiarik ba al du, Uhin? (Eskribau "traidorea" izatera ausartuko bazina...).

Zumaian badira,

Uhin Loiola



Ezer berezirik egin gabe, Napoleonen galoiak baino distiratsuagoak, eta tamalez baita galoiak bakarrik nahi dituztenak. Almorranak "en silencio" sufritzen dituztenak eta sufritu gabe ere isiltzen ez direnak. Napoleon baino eroagoak gaude batzuk eta Napoleon bera baino abertzaleagoak ere badira. Eta abertzaleak aipatuta, nola ahaztu laster hauteskundeak direla, hor ari dira galoi batzuei galipota kentzen, zebra bideak margotzen, bideak berritzen eta paol aldean ez dakit zertan. Pentsa, alkatea erretiratu aurretik korrespontsal lanetan agertu zaigu. Argi nabari zaidan moduan eta beste zerbaitez mintzatzeko saiatu arren, gu, galoiek baino medalloiek kezkatzen gaituzte. Eta Galeoia oraindik ur azpian da bete-beteta. Akatsak ateratzea erreza da, ez da kontu erreza garbiketarena. Baina uko egin zaie musutruk lana egingo luketenei, eta lanean ari direnak berriz ordu extregatik kexu. Kontu guzti honekin denak kopetilun, eta ez dut kreatibitate literarioz ere. Hortxe nire fobia. Ez al da gai guztietara hedatuko egonezin triste hau. Galikaput

Galipotez leporaino

Estitxu Eizagirre



Galipot uhinak tarteko, tarteko Uhin honi umorea belztu zaiola, zea... Niri, berriz, leporaino lan beltzetan aritu behar horrek ipuin bat gogorarazi dit. Ez da Napoleonen bezain ezaguna, baina bizitzarako historiako klaseak baino praktikoagoa da... Hor doa:

Oihanaren erdian, eta neguaren gorrian, txita txiki bat jaio zen. Arrautzatik ateratzerako nabaritu zuen arbolaren adarrak dardarka ari zirela, eta lurrera erori zen kabi eta guzti. Zer zen, lurrikara hori? Oihaneko animalia guztiak ziren korrika, arrapalada batean. Izan ere... Otsoak zetozen!

Gure txita txikia ere hasi zen, hanka motz horiekin nola-hala lasterka. Baina denek aurreratzen zuten: lehenik katakumea pasatu zitzaion. Ondoren hiena, aurreratzen zuen bitartean


aurpegira parra egiten ziola. Eta behiak ere jo eta pasa egin zuen! Behiak, larritasun horretan, bost kiloko kaka-plasta egin zuen, non, eta txita gaixoarene gainean! Txita botalarriak jota zegoen, erdi mareatuta, nazka-nazka eginda. Baina gero, konturatu zen bero-bero egoten zela kaka mokordoaren barruan. Ordea, arnasari eutsi ezin, eta burua atera zuen. "Txio!", "txio!" hasi zen negarrez. Otsoak entzun, eta hozka bakarrean irentsi zuen. Ipuin honek hiru lezio ditu: 1.-Lan zikinetan, "marroietan", kakatan sartzen zaituztenak, ez dira beti zure etsaiak izaten. 2.-Kakatatik ateratzen zaituztenak, ez dira beti zure lagunak izaten. Eta hirugarrena eta garrantzitsuenak: Kakatan leporaino sartuta bazaude, ez ezazu txintik ere aterala!

KORRIKA 13



... aek-k eta euskarak hainbat eraso jasan dutela azken urteotan ?

Aurtengo Korrikaren helburuak gauzatzeko herria eta herritarren laguntza beharrezkoa dugu. Izan ere, azkenaldian euskarari eta AEKri egindako erasoek larri kalte egin dute koordinakundea.



... zeu ere korrika laguntzailea izan zaitezkeela ?

Zure auzo, herri edo hiriko hainbat gunetan saigai duzun korrika laguntzailea izateko txartela erosten datoren apirilaren 4an Mauletik irtengo den KORRIKARI bidea urrats sendoz egiten lagunduko diozu.



10€ ren

truke metro sinbolikoa erosi eta lagun iezaiozu korrika 13ri bidea urrats sendoz egiten.

Izan zaitez

korrika LAGUNTZAILEA

...eta gainera aprobetxatu itzazu txartelak, Euskal Herri osoan, emango dizkizun abantailak

Onura gutxiak aprobetxatu ahal izateko beste itzazu orriak eskatzen dituen datuak eta korrika laguntzaile txartela jasoko duzu.



AITA MARI kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaira



ALBAITARITZA KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunak: 8:30 - 10
Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



finès
french
euskara
englantia
español
catalonian
suomi
basco
català
finnois
français
anglais
catalán
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

Julene Azpeitia sariak banatzen



HILAREN 14AN, Zumaiaiko Udalak Kutxaren laguntzaz antolatzen duen Julene Azpeitia XV. Ipuin Lehiaketaren sari-banaketa egin zen Foronda Kultur Etxean. Guztira 25 ipuin aurkeztu ziren XV. Julene Azpeitia Ipuin Lehiaketara eta horietatik zazpi zumaiaarrenak izan ziren.

Zumaiaiko Udaletxean epaimahaia bildu zen irabazleak erabakitzeko. Xabier Gantzaraini lehen saria, Laida Martinezi bigarrena eta Josu Waliñori zumaiaar ipuin onenaren saria ematea erabaki zuten. Arantxa Urretabizkaia, Pako Aristi, Martin Etxeberría eta Joxean

Agirrek osatu zuten lehiaketako epaimahaia.

Sariak M^a Eugeniak Arrizabalagak (Kultura zinegotzia) eta Jose Mari Zubimendik (Kutxako ordezkaria) banatu zituzten. Sariak banatu baino lehen Anjel Alkain aktore antiguotarraren saio umoretsua izan zen.

Lehen saria (2.000 euro) irabazi zuen ipuina Xabier Gantzarainen "Horoskopoa" izan zen. Aldizkari bateko horoskopoa darabil idazle batek gorrotatzen duen bere gaineko nagusi baten kontra mendekuak egiteko. Epaimahaia idazlearen umorea

nabarmendu zuen, eta lantzen duen ironia fina, euskal komunikabideetako giroaren ezaupidea eta euskal kulturaren inguruan egiten dituen gogoeta sakon eta iruzkin zorrotzak goraipatu zituen. Xabier Gantzarain ezaguna da "Euskaldunon Egunkarian" egiten dituen zutabeak direla-eta.

Bigarren saria (1.000 euro) irabazi zuen Laida Martinezen "Egunak eta gauak" ipuinean drogaren gai gogorra agertzen du modu oso sinple eta irakurterazean. Epaimahaia kontraste horren meritua nabarmendu zuen, gaia hain garratza eta korapilatsua izanik, era oso sinplea eta zuzenean agertzen asmatzen baitu Laida Martinezek.

Ipuineko neska protagonistak familiako giro jasangaitza eta ikasketak egiten dituen institutuan bere kontra erakusten duten jarrera itxia kontrajartzen ditu drogaren munduaren hasieran bederen askatzailea dirudienarekin.

Zumaiaar onenaren saria (800 euro) Josu Waliñoren "Hargin andaluz" ipuinarentzat izan zen. Txiritaren izen horretako bertsotik abiatzen da bi pertsonaien arteko istorioa asmatzeko.

Ez zuten ipuin irabazleen liburuxkarik banatu, izan ere, hamabost urte hauetan saritu diren ipuin guztiak (45 ipuin) liburu mardul batean biltzen ari dira eta laster izango dugu esku artean.

Imanol Azkueren egun handia

Idazle zumaiaarrak haur literaturako saririk garrantzitsuenetakoa irabazi du, Lizardi Saria.

"GAUR EGUN handia da". Horixe da Imanolek idatzi duen ipuina. Idazle batek sari bat irabazi du, eta sari hori jaso behar dueneko eguna nolakoa den kontatzen du. Idazlearen 9 urteko semearen ikuspegitik kontatua dago. Oso pozik dagoela esan digu Imanolek. Sari oso garrantzitsua izateaz gain,

ipuin irabazlea argitaratu eta zabaldu egiten delako. Beste ate batzuk irekitzeko giltza izango den itxaropena ere badu Imanol Azkuek.

Bere semeak saria jasotzeko egunaz izango duen ikuspuntua ipuineko umeak duen antzekoa izango al da?

Galipotak gure kostaldean eragindako inpaktua aztergai Oxforren

NATUR ASTEAREN barruan Prestigeren fuelak Euskal Herriko kostaldean izan duen eraginaren inguruko hitzaldia eman zen Alondegi Zaharrean.

Bertan Manu Gonzalez eta Gonzalo Torre natur teknikariak eta Jose Mari Elustondo Zumaiaiko garbiketa lanen koordinatzailea izan ziren hizlari.

Manu Gonzalezek ezbehar honen aurrean azaldutako jarrera ezberdinak aipatu zituen. Gobernuak eta administrazioek egoera honi aurre egiteko izandako arduragabetasuna azaldu zuen, eta baita komunikabideek emaniko informazio okerra aipatu ere. Izan ere, hedabideak datu okerrak eman dituzte nolabait benetako errealitatea ezkutatu nahian. Aldi berean, informazioaren gardentasunaren beharra azpimarratu zuen.

Petrolioaren garraioaz ere hainbat datu eman zituen. Itsasontzi horietako %60 Galiziatik pasatzen dira, eta istripuak izateko aukerak asko dira. Bost urtetik behin izan ohi da era honetako istripu bat. Beraz, arriskua nolabait onartua badago ere, ez dira neurriak hartzen.

Jarraian Gonzalo Torresek fuelak gure kostaldean, batez ere haitzetan izandako kalteak azaldu zituen. Izan ere, orain arte hondartzen berri izan badugu ere, arroketan dagoen fuelaren inguruan ezer gutxi azaldu da. Egindako inspektzioen arabera, Bizkaian Getxoko inguruak, Armintza eta Urdaibai dira zonalde kaltetuenak. Gipuzkoan, Sakoneta aldea, Getariako arratoiaren inguruak eta Jaizkibelgo haitzetan kaltea nabaria da.

Prestigeren fuelaren ezaugarriak ere ezagutzeko aukera izan genuen ber-

tan. Fuela jatorri industrialekoa da, eta duen emultsio ahalmenak itsasorrago bihurtzen du. Bestetik, fuel honek duen azufre kopurua handia da eta minbizia sor dezaketen substantziak ditu. Hori dela eta, jasotzerako orduan babes neurriak hartzea beharrezkoa da.

Fuelak hegazti eta itsasoko bizidunengan duen eraginaz ere mintzatu zen. Txapapotea hegoetan itsatsirik geratzen zaie hegaztiei eta honek hipotermia eragiten die. Bestetik deshidratazioz edota fuela irensteagatik kutsaturik ere hiltzen dira hegaztiak. Txorien ibilbide migratorioak aldatu egiten dira eta ondorioz ugalketa kaltetua izan daiteke.

Hitzaldia amaitu aurretik Jose Mari Elustondok Zumaiaiko hondartzen egoera eta garbiketa lanen berri eman

zuen. Lehen mantxak, gailera erakoak, urtarrilaren 10ean iritsi ziren Itzurunera. Hondartza garbitzeko, garbiketa zerbitzuetako jendeak jardun zuen lanean. Ondoren txapapote gehiago iritsi zenean, beste herri batzuetako garbiketa zerbitzuetakoak ere izan ziren Zumaian.

Bizkaiko golkoan zegoen mantxa izugarria iristeko arriskua zegoenez boluntarioei dei egitekotan egon bazi- ren ere, itsasoaren egoera onak itsasontziak irtetea ahalbidetu zuenez ez zen dei egin beharrik izan.

Guztira Itzurunen 55 tona, Algorrin 6, arroketan 7 eta Inpernupen 3 jaso dituzte. Egunak joan ahala kopuru hauek igoz joango dira, hondartzak garbi badaude ere, bideoan ikus zitekeen moduan arroketan dagoen fuela ugaria baita.



IZUSTARRI, ezkertiarren eta abertzaleen uztarri

OTSAILAREN 22AN aurkeztu zuten bakea eta askatasuna lortzea helburu duen Zumaia herri plataforma.

Ehun bat lagun bildu ziren Forondan egindako aurkezpen ekitaldian. Euskal Herri guztian sortu dira herri plataformak, legez kanpo uztear duten Batasunak lagako duen hutsunea betetzeko. Eta bide batez, hainbat pertsonak urte askoan egindako lana ezerezean ez gelditzeko. Abelin Linazisorok diktadura ondorengo urteen errepasoa egin eta gero, Oihana Amilibiak herri plataformen nondik norakoen berri eman zuen, lehendabizi. Lau helburu nagusi dituztela azaldu zuen:

1. Herrietan lan egingo duen egitura sortzea.
 2. Ezkerreko sektore abertzale zabalak jasotzea.
 3. Hauteskundeetarako lana ziurtatzea, beti ere parte hartzen uzten badiete.
 4. Etorkizuneko zutabeak ezartzea.
- Herri plataformen ildo politikoa sortu berri den Autodeterminazioaren Bilguneak (AuB) markatuko duela azaldu zuen. AuB Gernika Deialdia abiapuntutzat hartuta sortu den prozesu baten ondorio da. Bi ardatz dira

nagusiak: AUTODETERMINAZIOA eta ESKUBIDE GUZTIEN ERRESPETUA. Ardatz horietan oinarrituta Euskal Herrian bakea eta askatasuna lortzea dituzte helburu. Ondoren, Izustarri herri plataformaren ildo politikoak hiru zutabe nagusi hauek izango dituela azaldu zuen Oihanak:

1. Autodeterminazioaren eskubidearen defentsa. Edozein Herriren lehendibiziko eskubidea izanik, Euskal Herriak ere bere etorkizuna aske erabakitzeko eskubidea duelako.
2. Baldintza demokratikoen falta dire-

neko salaketa. Benetako bakea nahi du Euskal Herriak. Herritar guztion lehentasuna bakea dela gogorarazi zuen.

3. Ezkerreko ikuspuntu batetik bizilagunen baldintzak hobetzeko asmoa.

Hori guztia lortzeko guztion elkartasuna eta konpromisorako deia luzatzen dute Izustarri herri plataformatik.



Paolalde hankaz gora



Ohikoa ez den itxura dauka paolaldeak.
Hilabete batzuk pasata itxura berria izango
du. Noiz? Hauteskundeak baino lehen?



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

"Zikloturista izateko bizikletan ibiltzen gozatu egin behar da"

2

5 urte luze hauetan Tourmalet, Mortirolo, Gavia, Stelvio, Alpe d'Huez, eta beste hainbat mendate igo dituzte Zumaiaiko zikloturistek. Eta oraindik igoko dituztenak...

25 urte atzera eginda, nola sortu zen Zumaiaiko Zikloturista Elkarte?

Inaxio Alberdi: Garai hartan bi koadrila ibiltzen ginen bizikletan. Ordurako zaraiztarrek elkarte eginda zeukaten, eta haiek esan ziguten zergatik ez genuen bat egiten. Gure koadrilan lauzpabost bakarrik ginenez, beste koadrilarekin bat egitea erabaki genuen. Haiek onartu, eta horrelaxe sortu zen. Gure taldearen ideia izan zen. Kopuru polita osatu genuen: Joxe Mari Korta zena, Kandido, Joxe,

Bizikleta gainean igarotzen dituzten une gogorrak lagun giro jatorrak gozatzen ditu. Horixe da Zumaiaiko Zikloturista Elkarte.



Bittor, "Mañi", Katzaola, Luis Alkorta, Pablo Leiza, Joxe Mari Larrañaga...

Bittor Zubizarreta: Eta lehenengo lehendakaria Inaxio izan zen.

Inaxio: Bai, horrelaxe da. Ni hamar bat urtean izan nintzen lehendakari. Zergatik sortu zenuten?

Inaxio: Ibiltzeko gogo geneukalako, eta giro jatorra izaten zelako.

Herriko jendeak zer esaten zizuen?

Bittor: Zoratuta geundela. Pentsa, bizikleta izorratuz gero Durangoraino joan behar izaten genuen konpontzera. Horrelakoak ikusita, zer esango zuen ba jendeak!

Kandido Korta: Konponduta zegoen edo ez jakiteko Urkiolara igotzen ginen.

Nola gogoratzen dituzue garai haiek?

Joxe: Orduan ez zegoen orain dagoen hainbesteko afiziorik.

Inaxio: Ez bizikletan bakarrik, beste kirol batzuk egiteko ere ez zegoen oraingo afiziorik. Orain jende asko ibiltzen da korrika; orduan apenas.

Joxe: Donostian eta Irunen sortu zituzten lehenengo zikloturista taldeak. Geroago etorri ziren besteak.

Federatzeko kontu hori seguruarengatik izaten zen. Orduan 1.500 pezeta ordaintzen genuen. Orain, berriz, 15.000 pezeta.

Gabriel Centeno: gaur egun 70 eta 80 bitartean dago segurua.

Inaxio: orduan hamabi bat lagun ibiltzen ginen Zumaian. Orain, berriz, berrogeita hamarren bat. Lehen oso desberdina zen. Pentsa, orduan asteburuan bakarrik ibiltzen



"Batzuk ezkutuan ibiltzen dira, ondo prestatzen, gero denok elkartzeko garenean punta-puntan ibiltzeko."

ginen. Orain, astean zehar egunero ibiltzen den jendea badago.

Joxe: Batzuk ezkutuan ibiltzen dira, ondo prestatzen, gero denok elkartzeko garenean punta-puntan ibiltzeko.

Gabriel: Lehen ez al zen hori egiten?

Inaxio: Bai, baina orain baino gutxiago.

Bittor: Ez pentsa, Inaxio. Frantzia aldera joaten hasi ginenean, inguruko jende dezente ikusten genuen." Aiba, zer egiten dek hemen? Ba, kasualitatea... gaur atera egin nauk eta". Horrelakoak askotan ger-

tatzen ziren. Ezkutuan ibiltzen zen jendea. Kotxea mendi bazterrean utzi, eta bizikletan behetik gora.

Gogoan al daukazue egin zenuten lehenengo irteera?

Bittor: Zakila buelta egiten genuen normalean. Baita Debatik Azkaraterako buelta ere. Beti asteburuetan, eta denera hirurogeita hamarren bat kilometro.

Joxe: Andazarratera ere joaten ginen, eta gero Aian kriston hamaiketako egin eta etxera.

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



Kanpora ere joaten hasi zinetela esan duzue. Lehenengo buelta nora egin zenuten?

Kandido: Joxe Mari anaia, Katzaola, "Mañi" eta ni Tourmalet-era joan ginen 1977an. Goizean atera ginen hemendik, Pau aldean oilasko ederra jan, eta Tourmaletean gora abiatu ginen. Joxe Mari, buruko minez zegoela eta, kotxean igo zen. "Mañi" eta biok berotzen ari ginela, hasi da gorantz Katzaola, sekulako txistuan. Gu gora ailegatzen ari ginela, han ikusten dugu Katzaola oker-okar eginda. Gora iritsitakoan galdetu genion: "zer pasa zaik, Katzaola? Hauxe erantzuna: "Nor bait buruan porrakin danba-danba jotzen ari zaidala iruditzen zaik!" Handik Soulor eta Aubisque aldera jo

"Martxoko lehen igandean hasten gara, eta iraileko azken igandean bukatu"

genuen, eta bi mendi horiek ere igo genituen.

Bittor: Gu 78an joan ginen Tourmalet-era. Orduan ere gertatu zitzaigun latza. Restaurante gehienetan "fermé", itxita, jartzzen zuen, eta halako batean bat bilatu genuen irekita. Hori bai, arratsaldeko bostetan bazkaldu behar izan genuen.

Inaxio: Apetito latza izango zenuten!!

Horrelako pasadizoa mordoa izango dituzue...

Bittor: Handienetakoa Formigalera eginda-ko buelta da. Zumaia-rik irten eta Formigalera bizikletan. 268 bat kilometro. 1978an egin genuen hori. Onena, hala ere, horretarako egin genuen prestaketa izan zen. Aurreko asteburuan juntatu, eta kilometro asko egin behar genituela erabaki genuen. Zakila buelta hiru aldiz. Lehenengo buelta eman genuen, baina bigarrena asterako hamaiketako egiten gelditu ginen. Ondo jan eta etxera. "Datorrean astean gertatu behar duena gertatuko da" pentsatu, eta lasai asko etxera.

Hori entzunda, hainbeste kilometro izanda ere, zuek ez zenuten dietarik eta antzekorik egingo.

Bittor: Dieta? Ezta pentsatu ere!! Mugiroko gainean hamaiketako: arrautza prejitua, txorizo muturra eta urdaiaz-pikoa. Gero, Liedena aldean bazkaldu. Jaka aldera iritsi ginenean xerra pusketa ederra jan genuen. Handik Biescas-a, eta hogeita hiru kilometroko aldapa igo

ondoren, Formigalera iritsi ginen. Abuztua izanda, sekula-ko lamara egiten zuen, bero ikaragarria.

Kandido: Freskatze aldera, Puentelarreinan baino ederra hartu genuen.

Horrelakoak eginda, normala jendeak zorotzat hartzea.

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAI KLINIKA

Pazoleta de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Insuendegi Elgoibar

KABI

TABERNA - ZUMAI

Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

Santos Irigoien: Hala ere, orain gauzak aldatu egin dira. Gaur egun 200 kilometro egiteko jendea prestatu egiten da.

Joxe: Orduan, berriz, batere ez.

Santos: Garai hartan berrehun eta piko kilometro egitea abentura zen.

Inaxio: Bada Joxe Mari defuntuaren beste pasadizo bat. Biarritz aldean bizikletan gabiltzala, eman dio pajarak. Hura ezinean zebilela, guk nola edo hala bultza egiten genion.

Halako batean, hemen datorrela txistu ederrean beste txirrindulari bat. Heldu du Joxe Mari, eta konturatzerako bultza eta aurrera eraman. Orduan Joxe Marik: "eh, monsieur, monsieur". Eta besteak: "que soy vasco". Irunesa taldekoa zen lagundu ziona.

Joxe: Irun aldera iritsi ginen, eta Koka-Kola batzuk edan ondoren, berriz ere bizikletan ibiltzeko prest Joxe Mari. Taxi bat hartzea hobe zuela esan genion, baina hark ezetz. Eta horrela, Zumaiaraino bizikletan etorri ginen.

Aspaldiko kontuak lagata, gatozen orainaz hitz egitera. Urtean zehar zenbat irteera egiten dituzue? Eta noiz?

Gabriel: Martxoko lehen igandean hasien gara, eta iraileko azken igandean bukatu. Urtarrilean inguruko herrietako talde guztiak biltzen gara: Oriokoa, Zarauzkoa, Getariakoa, Zestoakoa eta gu. Bakoitzak zenbat seilatu eta non egingo dituen erabakitzen dugu.

Zer da seilatuen kontu hori?

Santos: Prestatutako ibilbidea egiten dela egiaztatzeko balio du. Herri bakoitzak

"Arriskua astegunetan izaten da. Asteburuan gutxiago. Igandean kotxean dabilenak badaki edozein bazterretan txirrindulariak aurkituko dituen"


urtean zehar hainbeste seilatu egiten ditu. Orduan, seilatu tokatzen zaionak herri bat edo leku bat aukeratu behar du igande batean egiteko. Herri edo leku horretan ordezkari bat egoten da, eta zikloturistok goizeko bederatziak eta hamaikak bitartean puntu horretara heldu behar dugu. Firma bota, eta han dagoen ordezkariak zikloturista bakoitzari seilatu bat egiten dio zikloturistok dugun liburuxkan.

Zuen denboraldia hastear dago. Zenbat izango zarete aurten Zumaian?

Gabriel: Berrogeita hamar, berrogeita hamabosten bat.

Lehen esan duzue orain dela hogeita bost urte ez zegoela orain bezalako afiziorik. Zuei nondik datorkizue, orduan, bizikletako zaletasuna?

Bittor: Bizikleta umetatik izan nuen. Gustatu, beraz, betidanik gustatu izan zait. Gero, bigarren gaztaroa esaten



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokata
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (heroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea Tel. 943 861523



zaion horretan, orain dela hogeita bost urte, bizikleta eros-
teko aukera izan nuen, eta hor hasi zen dena.

Kandido: Beti izan dugu gustuko gauza
bizikletan ibiltzea. Gogoan dut lehenen-
go buelta Joxe Marik eta biok egin genu-
ela. Bizikletak ez dakit nondik lortu geni-
tuen, baina igande goiz batean Arroatik
irten eta Azkarateko buelta egin behar
genuela erabaki genuen. Hori bai,
Itziarko hostalean hamaiketakoa eginda
gero. Halako batean iritsi ginen

"Kirol denetan gogorrena txirrindularitza da"

Azkaratera. Joxe Mariren bizikletari tubularra izorratu
zitzaion, baina aldatzeko beste bat ez genuen. Bagenekien
han inguruan Elorza txirrindularia bizi
zela. Haren baserria aurkitu, tubularra
erosi eta etxera.

Garai hartako bizikleten eta oraingoen
artean alde nabarmenak izango dira,
ezta?

Inaxio: Horixe. Honekin ez dauka zeri-
kusirik, baina ni ostegunetan Zarauztik
etortzen nintzen dantza erakustera.

ile-apaindegia

Maxi

Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Kotxerik ez, eta bizikletan. Nirea oso zaharra zenez, taillerreko lagun batena hartu eta harekin etortzen nintzen. Eta gaua egiten zenean, paola erabiltzen nuen ikusteko. Gero, bizikleta berri bat erosteko modua egin nuenean, 12.000 pezetan erosi nuen bat.

Harekin bai ederki...

Inaxio: Ez pentsa. Lehenengo irteera Meaga aldera egin nuen. Gero, Iraetatik barrena nentorrela, hango aldapa bat igo ezinda gelditu nintzen. Gelditu, eta ez lotsatze aldera, bizikletaren kanbioek arazo bat balute bezala egon nintzen haiei begira. Inguruko taberna batean Kas bat hartu, eta

etxera. Andreak esan zidan: "zer moduz, Inaxio?". Eta nik erantzun nion: "hilda". Bizikleta ganbaran utzi nuenean, begiratu nion, eta hauxe esan nuen nuen: "Jode!!"

Joxe: Orduan prestatu ere ez ginen egiten.

Santos: Nik uste dut bizikletan egiten den lehenengo irteeran denoi gauza bera gertatu zaigula. Norbera baino azkarrago doazen batzuk ikusi, eta gutxiago izan nahi ez horrekin, daukaguna baino gehiago eman eta lehertu egiten gara.

Joxe: Desarroiloek ere eragina zuten. Edukita ere, erabiltzen jakin behar zen. Orduko bizikletek plato bat eta hiru



Koop. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirari zelaiei mantenimendua

Txostenak ...

aholkularitza teknikoak,

Balorazioak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
arroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

piñoi izaten zituzten. Gaurkoek, berriz, hiru plato eta bederatzi piñoi.

Garai haien eta gaurkoen arteko konparazioekin segita, orain medikuen garrantzia izugarria da. Orduan?

Bittor: Orduan derrigortu egiten gintuzten mediku azterketa egitera. Utrillak egiten zigun guri.

Santos: Orain berriz, fitxa egiteko ez da derrigorrezkoa mediku azterketa egitea.

Joxe: Medikuen inguruan bada anekdota bat. Bi pertsonari medikuek ez zieten bizikletan ibiltzeko baimenik eman.

Zuek errepideetan askotan ibiltzen zarete. Arriskua latza da. Urtean zehar kotxeak edo kamioiak harrapatuta hainbat hildako izaten dira. Nola ikusten duzue arazoa?

Gabriel: Nahiz eta horrelako asko entzun, guk ez dugu beldurrik izaten.

Bittor: Arriskua astegunetan izaten da.

Asteburuan gutxiago. Igandean kotxean dabilenak badaki edozein bazterretan txirrindulariak aurkituko dituen. Gainera, orain binaka joaten uzten digute, eta kotxeek ere etenik gabeko marra zapaldu dezakete gu aurreratzeko.

Gabriel: Asko errespetatzen gaituzte, Hori bai, lehen igandean goizean goiz ateratzen ginen errepideetan kotxe gutxi ibiltzen zelako. Orain, berriz, goizean goiz joanda, gaupasa eginda etxera datozenak aurkitzen dituzu. Gaur egun goizeko lehen orduetan irteeta arriskutsuagoa da.

Kandido: Koadrilan joanda babestuago joaten gara. Txoferrekin haserretzea, eta elkarri keinuak egitea ona da. Ezer txarrik pasa ez den seinale. Txarrena izaten da bakarririk joan, eta norbaitek jotzen zaituenean.

Santos: Kamioi handiek ondotik pasatzean botatzen duten haizea ere arriskutsua izaten da. Bazterrera bidaltzen zaitu, eta bazoaz bazterrera eta bazterrera, eta larri.

Kandido: Estatistiken arabera, autobiak dira arriskutsuenak. Gainontzeko errepideetan, herrietakoetan eta, ez da arazo handirik izaten.

Inaxio: Gure artean ere izaten dira istripuak, tartean kotxe-rik edo kamiorik ez dela. Gertatu ohi da taldean joan, elkarri ikutu, eta lurrera erori.

Joxe: Gogoan dut, behin hirurok erori ginela: aurrena neu, gero Bittor eta azkena Inaxio.

Gatozen eliteko txirrindularitzari buruz hitz egitera. Larri samar dabilela ematen du. Babesle gutxi, dopina...

krisia, hitz batean esanda. Nola ikusten duzue?

Joxe: Arazoa da gastuek gora egin dutela. Ikaragarritzko dirutza gastatu behar da talde profesional bat ateratzeko.

Santos: Txirrindularitzaren inguruan dabilzan sasimedikuek ere eragina dutela uste dut. Horiek dira babesleak urruntzen dituztenak.

Inaxio: Dirua jartzen duenak garaipenak behar ditu, eta horiei ez zaie inporta dopatuta edo dopatu gabe.

Kandido: Azkenaldian dopatzen dena harrapatu egiten dute. Hala ere, ez dut uste horregatik dagoenik babesle gutxiago.

Santos: Jendearen aurreko irudiak ere badu garrantzia. Gaur egun positibo ematen duenari drogazale deitzen zaio. Horrek ere eragina du publizitatea egin nahi duenarengan. Pentsak ere ez du batere lagundu. Txirrindularitzako dopin kasuei izugarritzko garrantzia ematen die. Futbolekoiei bat ere ez.

Zergatik begiratzen zaio hainbeste txirrindularitzari?

Santos: Dopinaren gaian aurreratuen dagoen kirola delako.

Kandido: Kontu egin itzuli handietan hogeita eta bi etapa direla. Egun guztietan puntan ibiltzeko denak ondo zainduta egon behar du. Denak perfektua izan behar du. Makinak dira. Norbaitek zerbaiten ale bat hartu duela? Hurrengo urteko fitxa lortzeko irabazi egin behar duenak...

Santos: Oso kirol gogorra da. Gogorrena.

Hain gogorra izanda, gazteak lehen bezala animatzen al dira?

Joxe: Jaitsi egin da. Momentu honetan oso gutxi dago.

"Txirrindularitzako dopin kasuei izugarritzko garrantzia ematen die. Futbolekoiei bat ere ez"

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



Alberdi
Gizonetzkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behe 943 86 23 01

Bittor: Bai, behera egin du, baina Zumaian orain ere badi-tugu pare bat politak. Nik uste dut eskoletatik hasi behako litzatekeela. Haurrek egiten dituzten beste kirolekin batera jarri, eta umetatik hasi.

Inaxio: Garestia ere bada, eta horrek atzera eginarazten du. Joxe: Entrenamenduak ere bakarrik egin behar izaten dira askotan. Euria, eguzkia edo hotza egin, errepidera ateratzen behar. Gazteak nahiago du motxila egin, eta kiroldegira joan.

Kandido: Kirol denetan gogorrena txirrindularitza da. Dudarik gabe.

Gabriel: Joxek esan duenarekin ados nago. Futboleak, eskubaloia, saskibaloia astebururo daukazu partidua. Asteazken zehar entrenatu, eta astebururo lehiaketa. Txirrindularitzan, berriz, ez. Urteazken zehar entrenamendu mordoak egiten dituzu lasterketa bat prestatzeko. Eta gaizki ateratzeko arrisku latza daukazu, gainera. Gainontzeko kirolak, alde horretatik, politagoak dira.

Santos: Entrenamenduak ere errepidean egin behar dira. Gurasoek, normalean, ez diete esango beraien seme-alabei errepidera irtetzeko oso arriskutsua delako. Horrek ere eragina du egin behar duzun kirola aukeratzeko orduan.

Gabriel: Irteera gutxi duen kirola ere bada. Gaur egun zenbat igotzen dira afizionatuetatik profesionaletara? Hor dago arazoa.

Zumaian txirrindularitzak ba al du etorkizunik?

Joxe: Gazte mailan bi onak izan ditugu, Iban Iriondo eta Ekaitz Eizagirre. Orain afizionatu etara igo dira, eta ikusiko dugu zer egiten duten.

Bukatzeko, porra txiki bat egitea proposatzen dizuet. Zein izango da aurtengo Tourreko podiuma?

Joxe: Armstrong eta Ullrich hurre izango dira.

Aurrena Armstrong. Hor denak konforme?

Santos: Bai.

Bittor: Nik ez nuke nahiko berak irabaztea. Ez dut nahi berak Indurainen marka egitea.

Inaxio: Ezta nik ere.

Joxe: Desguztiren bat ez bada gertatzen...

Kandido: Nik ez nioke pegarik jarriko. Kriston meritua

dauka mutil horrek. Berak egin duena...

Eta Beloki?

Santos: Hortxe segiko du.

Kandido: Hiru Tour egin ditu, eta hiruretan podiumean. Handia da hori egitea. ■



ZIKLOTURISTEN ELKARTEAK 25

urte betetzen ditu. 1978an sortu

zen, eta urte hauetan hamaika

irteera egin dituzte. Ez pentsa

nekatu eta uztekotan daudenik.

Baietz beste 25 urte!!



**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

Basadi Auzategia, 10 beheka
Tel. 943 862051



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Ez gaituzte isilduko

Gorka Zabaleta zumaiarra Egunkariako kazetaria da. Kronika honetan ederki asko azaltzen digu bizi duten egoera. Une gogorrek dira. Gordinak. Denon babesa behar dute. Euskarak behar gaitu.

Ametsgaitoa
"Gorka, jaiki zaitez, Guardia Zibila Egunkarian sartu dela esan dute irratian, Del Olmo eman omen du agindua".

Guardia Zibila, Egunkaria, Del Olmo? Zein Del Olmo? Luis Del Olmo? Lozorrotik kolpean aterata, azken ametsgaiztoko arrastoak ote dira? Ez da posible. Irratian: "Guardia Zibilaren operazioa Egunkariaren kontra. Juan Del Olmo epailearen aginduz, Egunkariako hamar kide atxilotu eta Bilbo, Iruñea eta Gasteizko delegazioak itxi ditu. Une hauetan Andoaingo egoitza nagusia ari dira miatzen". Ez da posible. Korrika batean, kotxea hartu eta banoa Andoainera. Irratian berriro, oraingoan tertuliano batek: "Zorritzarrez, Egunkariak igandean argitaratu elkarriketan bete-betea asmatu zuen Aski Da taldeko kide Fernando Savaterrek, Andoain izango zela Euskal Herriaren egoeraren eredu" (Udaltzainburua hil ondoren egindako elkarriketa izan zen). Ez da posible. Zergatik? Irratian: "ETak diruz lagundu omen zuen Egunkaria bere sorreran, eta lehen Administrazio Kontseiluko kideak izendatu". Ez da posible. Iritsi naiz Andoainera. Egunkariaren egoitzara hurbildu ahala konturatzen naiz egia dela, Guardia Zibilak han direla, lapurren modura gauaren erdian sartu direla, dena hankaz gora jarri dutela, etxea prezintatu digutela, eta hamar lankide eraman dituztela. Egia da.

Beroaldian

Egunkariak lanerako emandako mobila ez dabil. Paranoia. "Guardia Zibilak blokeatuko zituen". Gertatzen ari denaz jabetzeko ia astirik gabe, Aek-ren lokalean bildu gara, egoera aztertu eta erantzuteko. Hainbat batzorde antolatu dira. "Egunkaria atera beharra dago nola edo hala. Bihar kioskoetan izango



gara". Muturreko latza hartu berriak, beroaldian ez dugu minik sentitzeko astirik hartu nahi. Lan egin nahi dugu, inoiz baino gehiago, lana gogotik egin ez dena bere onera etorriko delakoan. Baina zaila da burua hotz mantentzea. Gure amorrua, beldurra, haserrea, eta ezina, inguruan sumatzen ditugun elkartasuna, babesa, laguntza eta bul-tzadarekin nahasten dira. Bihotzak zaldi eroa dirudi. Irratian: "Gaur goizean milioika lagun mobila eraibili ezinik gelditu dira, Vodafone zerbitzariak sarean izandako arazoak medio". Guardia Zibila ez da argia, beraz.

Lehen garaipena

Lehen Egunero prest daukagu. Bitarteko eskasekin, bulego txiki batean, baina edizioa amaitu dugu. Badakigu, ordea, oztopoak izango ditugula kioskoetara iristeko. Iruñeako Diario de Noticiasen inprimitzen zen Egunkaria, eta beraiegana jo dugu Egunero ere inprimitzeko. Zalantzak izan dituzte, baina azkenean baietz. Guardia Zibila ez dago ordea, amore emateko prest. Diario de Noticiasen atarian dira. Egunkariarekin zerikusia duen produkturik ez dutela inprimituko sinarazi diote Kikori, inprentako arduradunari. "Nik nahi duzuna sinatuko dizut eta gero eramango nauzue kartzelara", erantzunez sinatu du papera. Kiko, gure idolo berria. Rojo iritsi da furgonetarekin. Aleak kargatu eta badator Andoainera, banaketa prozesuari ekiteko. Hurrengo goizean, miraria: "Itxia baina ez isildua". Harpidedunek buzoian dute Egunero, eta kioskoetan lehen orduan agortu dira 50.000 aleak. Irabazle sentitzen gara.

Mundu bat Egunkariarekin

"Ghettoan ere ez gaituzte bakean uzten" entzun nuen erasoaren goiz madarikatuan. Askotan, euskararekin lan egiten dugunok, ghetto batean sen-

titzen baikara. Baina gaur, larunbatez, ghetto horiak bota nahi ditugu milaka eta milaka lagun indarrarekin. Antiguako tunelean nago, lankideak ondoan. "Egunkaria aurrera" diote gure elastikoek, "Egunkaria aurrera" inguratzen gaituen jendetzak. Ileak tentetuta, oilo-ipurdia. Burrumba sabelleraino sartuta, bihotza eztarrian gelditu zait kateatuta, kanpora bidean. Oihu egin nahi dut, baina ezin. Nire begiradarekin esker ona adierazi nahi diet bide bazterrean bildutakoei, baina ezin. Hemen, Donostian, gure inguruan gertatzen ari denari neurria jarri nahi diot, baina ezin. Manifestazio burua iritsi da Bulebarrera, azkenak oraindik irteera puntuan daude. Kopuruak soberan daude; gaur mundu bat izan da gurekin, euskaltzaleen mundua, askatasunzaleen mundua.

Komunikazioa-inkomunikazioa

Guk jasotako indarraren zati bat helarazi nahi genieke kartzelako zulo beltzean atxilotuta dauden hamar lagunei, baina inkomunikatuta izan dituzte bost

Harpidedunek buzoian
dute Egunero, eta
kioskoetan lehen
orduan agortu dira
50.000 aleak. Irabazle
sentitzen gara.

egunez. Gaur, astelehena, epailearen aurrean deklaratu behar dute, berriro inkomunikatuta eta konfiantzazko abokaturik gabe. Gaizkile beldurgarriak dira nonbait. Martxelo Otamendi, Iñaki Uribe, Joanmari Torrealdei, Txema Auzmendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Fermin Lazkano, Luis Goya, Inma Gomila eta Xabier Alegria.



Ben Laden baino arriskitsuagoak, antza. Arriskitsuak, euskara, euskal kultura eta Euskal Herria izan dituztelako bizitzan gidari; hitza dutelako arma, arma isilezina.

Konpromisoa

Inoiz ez genuke pentsatuko Egunkariak gizartean horrelako erantzuna sortzeko gaitasuna izango zuenik. Elkartasuna bide, leku eta modu guztietatik iritsi zaigu. Gizarte eragile gehienak gurekin dira. "Bidegabekeria izugarria izan da", "adierazpen askatasuna urratu dute", "euskarari egin diote eraso",..., milaka aldiz entzun eta irakurri ditugu egun hauetan. Baina hitzak haizeak eramaten ditu. Orain konpromisoen ordua iritsi da. Guk Egunkariako langileok, egunero euskarazko egunkari bat egiteko konpromisoari eusten diogu: egunkari euskaltzalea, nazionala, baterakoa, zabala, inongo erakunde politikori lotu gabea, erdarazko komunikabideei lotu gabea, ez instituzionala, instituzioek lagundua, militantea, profesionala eta berria. Euskal gizarteak erakutsi du euskarazko egunkaria nahi duela. Orain instituzioei dagokie egoerak eskatzen duen neurriko erantzuna ematea.

Gorka Zabaleta
EGUNKARIAko kazetaria

EGUNKARIA AURRERA

EUSKALDUNON EGUNKARIA itxi digute. Gure egunkaria. Nola gainera? Munduko kriminalik arrisku-tsuenak balira bezala atxilotu eta eraman dizkigute zuzendaritzako 10 kultur gizon emakumeak. Euskaldunok poliki-poliki arnasarik gabe utzi nahi gaituzte. Zazpi probintziak egunero elikatzen zituen euskara idatziaren bizkar-hezurra hondatu digute oraingoa.

Baina gure erantzuna ere ez da txarra izan. Itxi bai baina isildu ez. Donostian larunbatean bildu ginen kontatu ezineko jende uholdea konturatu da garbi joko zikin honetaz eta nahikoa da irrintzi egin du. Konturatu gara Espainiako Gobernuak aurrez prestatutako estrategia bateko jokabide zitala dela, lehendik egin dizkigun beste eraso asko eta askoren jarraipena. Aurreko erasoei behar zen bezala erantzuten jakin izan bagenu, ez ziguten agian hau egingo. Epaitegien bidez terrorismo izenekoaren gomazko globo barruan gero eta talde gehiago sartzen doa etengabe, errukirik gabe egurra emanaz. Bush jaunaren bidetik eta eskutik, Aznarrek ere asmatu du nondik nora konpondu Espainian sortzen ari zaizkion arazo larriak. Zenbat eta gehiago egurtu Euskal Herria terrorismoaren izenean, orduan eta agintari jatorragoa espainiarren aurrean.

Zumaiarrok ere ez diogu muzin egin Egunkariari. Gogoan dut 1990ko uda beroan nola aritu ginen Itzurun eta Santioko hondartzetara zihoazenei ordurarte inork ezagutzen ez genuen egunkari jaio berria eskaintzen. Hasiera hasieratik ireki zitzaizkion ateak Zumaiari, bere harpidedun, nahiz kapitalaren partaide eginaz. Herritar ugari ikusi

dugu sumindurik Donostiako manifestazio erraldoian ere eta ziur nago hemendik aurrera eman beharreko urratsetan ere ez dugula atzera egingo.



“Lizarra Garazi bidera jo beharra daukagu derrigor”



Kaltea egina dago, hainbeste urtetako izerdi eta nekeren fruitu bikaina galipot zikinez hondatua. Kostako zaigu aberia kontopontzea. Baina lezioa ikasita gaude aurrez. Lehendik ere jakin dugu euskaldunok, geuk aurrez jasotako egunkaria desegin arren berreraikitzen. Gainontzeko herritarrek ordaintzen dituzten kontribuzio eta zergak zintzoki pagatzeaz gain, geure patrikatik jarri beharko dugu beste behin ere, euskaldun bizi ahal izateko beharrezkoak eskura ahal izateko. Gure hizkuntza xaharrak merezi du hori

eta gehiago.

Gero eta garbiago dago etsaia nor den eta ze asmorekin dabilen. Berrito etorriko zaizkigu aldiari behin, auskalo nora hurrengoan. Erantzun egokia emateko denok elkarturik prest egon gaitzen. ELA, LAB eta ESK sindikatua elkartu egin direla dugu azken aldiko berri pozgarria. Politika munduan ere Lizarra Garazi bidera jo beharra daukagu derrigor. Nik badakit buruz arrazoi ugari ditugula elkarrekin haserre ibiltzeko, baina bihotzak dio, herri honek aurrera egingo baldin badu, ez dagoela beste erremediorik. Batuta ere nahiko lan, baina hori ezean, jai daukagu. Guzti hau geure onerako izan dadin lor genezake, berriro elkarrengana bildu eta batera herri hau eraikitzen hasten bagara. Hala balitz, zorieko hondamendia aurtengo otsailaren 20an hasitako hau.

J. Dorronsoro

SALAKETA, ELKARTASUNA ETA KONPROMISOA

GURE OROIMENA bat-batean 10 urte joan da atzera eta gogora ekarri dugu nola 1993ko amaieran hasi ginen Baleike aldizkariaren proiektua lantzen. Ordurako argia ikusia zuten han eta hemen zenbait herri aldizkariak eta, batez ere, 3 urte baziren kalean zela euskal prentsaren ikur eta zutabe nagusia, egunero argitaratzen zen euskarazko egunkaria. Hasiera oso gogorra izan zuen eta oso ondo ulertzen dugu egoera hura, maila txikiagoan bada ere antzera ibili ginelako gu ere: diru arazoak, erakunde publikoen babesik eza, proiektu alternatibo funtsik gabekoak... Hasiera hartan produktua bera ez zen bikaina; orri gutxikoa zen eta azken orduko berririk ezin izaten zuen jaso, baina geurea zen, euskaldun guztiona.

Orain, ordean, 10 urte geroago, bai azpiegitura aldetik, bai giza baliabideetan, bai produktuaren kalitatean, proiektua inoiz baino sendoago ikusten genuen, aurrera begirako gogo biziz, gainera: Martin Ugalde kultur parke dotorea, langile zailduak, kolaboratzaile talde zabala, gehigarri berriak, koloretsuak... Hain zen polita, eta geurea!!! Badirudi noiz indartu eta finkatu zain egon direla, gero egurra emateko!

Zaila da astebeteko epean zer sentitu dugun hitzez

“Ezinbestekoa iruditu
zaigu salaketa,
elkartasuna eta
konpromisoa
adieraztea”


adieraztea: inpotentzia, nahigabea, ezintasuna, nazka, sinetsi ezina, kezka, beldurra eta gehienbat amorrua, are eta handiagoa astelehenean atxilotuetako batzuk aske utzi ondoren, jasan dituzten tratu txar eta torturen berri izan eta gero. Horregatik, eta geure txikitasunean sektorekide sentitzen garen aldetik, ezinbestekoa iruditu zaigu salaketa,

elkartasuna eta konpromisoa adieraztea:

- Euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso larri hau salatu nahi dugu.
- Euskaldunon Egunkariako langileei, arduradunei eta bereziki atxilotutakoei eta haien ingurukoei gure elkartasuna adierazi eta oraindik kartzelan daudenak lehenbait lehen aska ditzatela eskatu nahi dugu.
- Euskal prentsaren alde bere garaian egin genuen apustua gogor defendatzen jarraituko dugula eta Euskal Herriak euskarazko egunkaria izan dezan laguntzeko konpromisoa hartzen dugula jakinarazi nahi dugu.

Gu ere eramaten ez bagaituzte, behintzat, horretan ahaleginduko gara.

Xabier Azkue eta Josu Waliño



"kaixo baleikekoak,
iepa zemouz, Euskaldunon Egunkarian gertatu denarekin maria eujenia eta besteak ihesi datoz baleikeko orri hauetaraino,
atxilotuak izatearen beldurrez.
galdetzen dute ea hemen egon daitezkeen beste arazoa konpondu bitartean.
eskerrik asko aurrez.
jon"

Ze iruitzen zazu Euskaldunon Egunkaria ixtia?



Aitor Emazabal

Ondo ez, desde luego. Holako gauzekin ezta hemengo arazua konpontzen. Gaiztotu eiten da. Probak nondik ateako dituzte?



Brigida Ibarbia

Harriya burutik behera eroi zakula. Horrek beste erantzunik eztaka.



Maritxu Etxabe

Astakei haundi bat, hitz batian esanda. In leiken haundiyyenetakua.

CROISSANTERIA

Marina

pizzak
hanburgesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Etikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuna
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1



Eli Alonso

Etzat ondo iruitzen. Eztao eskubideik. Euskaldunon gauza guztiyekin gauza bea gertatzen ai da.



Luix Urteaga

Gaxki. Zeatik kendu due? Dana euskaraz daolako? Euskal Herriyan euskaraz hitzein bihar da!!

Egunkaria aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun
(dagoeneko harpideduna bazara, ez bete)

deitu **943 30 35 55**
943 30 35 54

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide honetara:
Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu **Egunero**

Tapaia
Zabala

Erribera Kalea 20750 ZEMAJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**

ARozTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505

SANTA ESKEAN 2003

Bertolaritza

ZUMAIA BI talde ibili dira aurtenera Santa Ageda bezperan kantari, eguraldi eskasa egin arren. Alde bate-tik herri eskolako ikasleak kalez



Zumaiako
Bertsu Eskola

kale, beren koplatxoak kantatu dizkigute, trikitiarekin laguntzarekin, eskuan makila dutela. Horretarako aurrez eskolako gela bakoitzean lau kopia paratu dituzte ikasleek, Ana Delia Mendizabal eta Ane Murua irakasleen gidaritzapean gero umoretsu gure kaleak alaitu ahal izateko. Eta beste aldetik, Jon Maia eta Baxakarte koplarien lagun koadrila, Estazio aldetik hasi, Askizu aldeko baserriak pasa eta Erribera kalean amaiera emanaz. Arratsalde gogoangarria igaro omen dute, jakin dugunez, aurtenera Baxakarte beteranoaren grazi txinpartatsua izan dutelarik ustegabeko berria.

Herri eskolakoek kantatu dituzten kopia batzuk eta handien koplarien argazkia ekarri ditugu orrialde honetara.



Doinua; Bonbolontena nere laztana:

- 1
Arratsaldeon lehendabizi
txoko hontako denori
herri eskolako ikasleak
etorri gera kantari
- 2
Gure herriko ohitura zaharrak
behar ditugu jarraitu
horregatikan santa Ageda
urtero-urtero ospatu
- 3
Kanta kantari iritsi gara
makila eskuan hartuta
baserritarrez jantzita gatz
ondo pasa nahi dugu ta

- 4
Gaur hemen gaude umore onez
santa Ageda bezperan
urtero bezain kantari gatz
makila dinbi eta dan
- 5
Trikiti-panderoen laguntzaz
eztarria bero-bero
limosnatxo bat bota mesedez
saioa bukau ta gero
- 6
Agur bero bat lagun guztioi
ta ondo pasa eguna
azkenengo koplatxo honekin
bukutzen degu jarduna

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

"Gure herriko gaztiak euskeraz gaixki hitzeiten die!!"

Euskara

AUSKALO ZENBAT aldiz entzun dudan (askotan neuri esanda gainera!) hor goiko esaldi hori. Susmoa daukat "zaharren" artean betidanik egon dela gazteek gaixki hitz egiten

dutenaren ustea, eta batek daki, geuri ere garaia iristen zaigunean marmarrean jardungo dugun gazteen euskera dela eta (espero dut ezetz). Kontuak kontu,

gaurkoan gazteen alde egitera natorkizue. Neurri batean ez zaidalako bidezkoa iruditzen Zumaiko gazteok euskeraz gaixki egiten dugula entzutea.

Ez ote da askotan gazteen euskera txartzat jotzen helduek bezela ez dugulako hitz egiten? Ideia tentagarria da bai, "euskerarik onena, betikoa, zaharrena, garbiena, jatorrena...". Eta hau gure herrira ekarrita, ba pentsa ezazue...

Baina euskera aldatu egin zen, aldatzen ari da eta aldatu egingo da. Baita Zumaian ere! Kontua hau da: azkenengo belaunaldien edo generazioen euskerak aldatuta azkarragoa eduki duela eta horregatik Zumaiko euskera ere askoz gehiago aldatu dela azken hogeitortan aurreko hamarkadetan baino. Eta ondo asko dakigu normalean aldatuta azkarrak zenbait jenderi ez zaizkiola gehiegi gustatzen...

Zer dela eta gure herriko euskeraren aldatuta azkar hau? Ba hasteko gazteok (eta gazte ez direnek ere bai) "beste" euskera batzuk ere ezagutzen ditugulako: hor dago euskera batua, telebistek, irratiek eta egunkariak zein aldizkariak lau haizetara zabaltzen dutena. Ikastole-

Ibon
Manterola
Hizkuntzalaria



tan eta eskoletan ere berdin, etxeko euskera bezalakoa ez den euskera bat erakutsi digute eta ikasi dugu. Euskal Herriko beste hizkerak, beste euskalkiak ere hobeto ezagutzen ditugu zaharragoek baino, besteak beste orain Euskal Herria "txikiagoa" delako eta euskaldun guztion arteko harremanak (oro har) asko erraztu direlako.

Kike Amonarriz soziolinguistak (bai, ETBn txiste kontatzen ikusten genuena, eta herrian gurasoentzat hitzaldi pareta eman berri duena) hauxe dio elkarrizketa batean (Bat Aldizkaria, 42. zk.), "euskalkiak (Zumaiko euskera, adibidez) euskara batua bera baino dezente gehiago aldatuko direla (...) erabilera informaletan eta egunerokoan erabiliko direnez jasoko duten kanpoko eragina askoz handiagoa izango delako". Kanpoko eraginak zein dira? Ba adibidez goian kontatu dizkizuedanak, eta baita erdera(k), komunikatzeko era berriak (txateoa, sakeleko telefonoak...), eta abar.

Beraz, ez da bidezkoa gazteoi euskera txarra egiten dugula esatea. Eta orduan, zuetako batek pentsatuko du: "dena libre? Behin euskera aldatzen ari dela onartuta berdin da gazteek nola hitz egiten duten?" Ez, horixe ezetz, baina honetaz hurrengo zenbaki batean jardungo natzaizue, honez gero aspertzen hasiak zarete-eta.

Bukatze aldera, ez pentsatu, irakurle, zeure euskara "ona" ez denik, gogoratu Koldo Zuazok (Euskararen sendabelarrak, Deba Ibarretik euskararen herrira, etab.) azken liburu honetan dioena, gaur egun ere, euskara bizirik dagoen herrietako hiztunek euskara ona egiten dute, oro har. Gureak oraingoz bizirik dirau!

EGUNKARIA AURRERA!!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatua • Aseguratuak
Finika Administrazioak

biomin aguirre 4. behe
20.750 zumaia (gizakia)
E-mail: garzua@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670



alvoa-se!

baleike

Bizitzak... NAROA!

BANATOR ORAINGOAN ere Lisboako txoko birtual hau errentan jartzera. Oraingoan bizitzak emandako plazer eta titulu txiki horiek dittut aipagai. Plazerretaz asko hitz egiten da, komunikabide orok du hain beharrezkoa zaigun sexuaz hitz egingo digun atala, bere kontseju emaila esperientzidunaz, etxeko lanak agindu eta agindu; batzuek ikasle txarrak izan ordea, eta geure eskuei begira beste erremediorik ez dagoela pentsatzen dugu, esperantza "inbidia sanoaren" amaraunaz estaliz. Baina tituluez? Tituluak eta tituluak daude noski, baina nik bi klase daudela esango nuke: batzuk zeuk borondatez irabazitakoak, eta besteak bizitzak berak ematen dizkizunak ixil-ixilik har ditzazun. Lehenbizikoekin ez daukagu arazorik, zer pentsatzekoa da pertsona bat zerbaiten nahian baldin badabil, eskuratzen duenean pozik izango dela. Niri besteek ematen didate buruko mina. Zer pentsatua bai behintzat. Hara zer gertatzen den. Patxada ederrean bizi zara; batere preokupaziorik gabe (loa galaraziko dizunik ez behintzat), eta bat-batean konturatzen zara gizarteak edo inguratzen gaituen jende multzo horrek (batzuetan gizartea baino zoologikoaren antza gehiago izan arren!) jarri dizkizula titulutxo batzuk bizkar gainean: lehenbizi seme edo alaba zara berekin dakartzan ondorio guztiekin; ume bihurria edo lotsatiaren klitxea ere laster etorriko zaizu; ikasle eskaxa edo egokiagoa izango zara ikaskideentzat; asko ligatzen duena (a zer plazerra!) edo sekula ezer jaten ez duen horietakoa (gora gu ta gure eskulanak!); ... trafikoko multak ere sartuko nituzke esperientziaz saku horretan, ez baitut ezagutu egundaino isun bila jo ta su aritu denik, eta titulu benetan astuna denik ez dit inor ukatuko ezta? Eta pixkanaka, jarri dizkizuten titulu horiekin guztiekin "beraientzat prestatutako zeure izaera" osatzen duzu, eta zeure buruarekin kontraesanetan ibiltzen zara behin eta berriz. Honetan ari nintzen otsaileko eguzki epeletan ikasten leihoa parez-pare irikita, eta iritsi



zitzaidan mezutxo bat. "Hi, ya osaba deittu berkoyat!!" Ttak!! Bizitzak beste titulu bat eman zidan. Zertarako ukatu, esperotako titulua zen, eskatutakoa ere bai neurri handi batean, baina hala eta guztiz ere partehartze aktiborik ez nuela izan ziurtatzeko moduan naiz. Halere, azer plazerra! Urak dakarrena, urak daroa diño esaeriek; hemen, bizitzak dakarrena... Naroa! Capoeira eta caipirinhaz beteriko egunak opa dizkizut. Aurrera egin eta egunero zeure burua gaintzeko indarrez horni zaitezen lehena; bigarrena berriz bizipoza eta ero punttua emateko.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuatarako departamentu

Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plaza z/g Tel. 943 861322

Inauteriak ate joka

BA AL LEIKE? Aurten ere uste baino lehen iritsi dira inauteriak. Urte hasieran dena urruti ikusi ohi da, gauzak lasai eta presarik gabe egiteko aukerarekin. Baina denbora ez da gelditzen, aurrerantz doa beti.

Aurten ere "irudimen ezaren trenak" harrapatu gaitu. Gainera ematen du denborarekin irudimena gutxitzen joaten dela edo lehen ginen bezain ausartak ez garela. Garai batean edozer eratan mozorrotzen ginen, hotzaren eta lotsaren batere beldurrik gabe.

Gogoan daukat behin kuadrilakoak, nola jantzi ginen haurdun zeuden emakumez, zein baino zein tripa

haundiago eta itxura barregarriagoz. Edo "Chicas Martinis" patin gainean ibili ezinik. Submarinistas ere jantzi ginen beste batean, euriak atertu ere egin ez zuen gau batean. Bizkarrean oxigeno bonbonak, oxigenoz bete ordez, Kalimotxos bete genituelarik. Sokatirako taldez ere mozorrotu ginen, geure indarra beste kuadrilaren batekin demostratu nahian, galtza motzetan otsaileko hotzetan. Baita anguleros jantzi ginen urtea ere, "Baia" haundi bana esku batean eta angula itxurako spaghetti baldekada bestean genuela. Gau ederra izan zen baita ere, Tanborradaz jantzi ginenekoa. Denok sukaldariz jantzirik, geure tanborrak

gogoz joaz eta bat minifalda motzarekin bere hanka luzeak erakutsiaz. Donostiako San Sebastianetan ere ez da hain abanderada ederrik ikusi. Beltz Afroamerikanoz ere mozorrotu izan gara, 60ko hamarkadako jantziekin eta peluka beltz kixkurrekin. Argazkian ikusi daitekeenez, ez genuen gorputz guztia beltzez pintatu eta ez pintura bukatu zitzaigulako. Bailoteo ederrak egin genituen urte horretan, eta bapo mugitu genituen bai gerria eta baita ipurdia ere. Orain dela bi urte izan zen, azkeneko aldiz mozorrotu ginen eguna. "Papa Mobil" zuri haundia, bertan Aita Santu galanta, herri guztia bedeinkatuaz, ondoan bi Arzobispo zituelarik. Hauek zaintzeko Bizkartzain kuadrila dotorea, kaleko umeen amenazetatik (El Papa va a morir, oihukatuz) Aita Santua defenditu nahian. Tartean monja dantzari bat ere bazen.

Aurten berriz, hemen gabilta zertaz "disfrazau" asmatu ezinik. Ideiak "mehe" dauzkagunez, agian onena, lehengo urtean bezela hobe izango dea, afari eder bat egin eta soziedadian tertuliyen egotia. Beno eta Zumaian, gu baino "Kuadrila Originalagorik" baldin badago, ea animatzen diren eta beraien abenturen berri ematen diguten hurrengo atalean.

*Besterik gabe,
No Soluxion.*




Tel. 943 860000

ERROTA

OPIL-OKINDEGIAT

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI

G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea

943 86 22 65 - 609 46 56 37

Zumaiako Herri Krosa 2003

ZUMAIARRAK KROSEAN

GIZONEZKOAK

11. JAIME OSA 34:14
19. MARIANO SANCHEZ DE LA FLOR 35:27
23. PAULO AGIRREZABALAGA 35:33
27. JESUS MARI ARRONA 36: 04
54. JON SASIAIN 37: 31
62. JON ULAZIA 37:48
83. PEIO SANTAMARIA 38:57
85. MARTIN AMILIBIA 39:09
90. JUAN IGNACIO ALKORTA 39:17
92. XABIER LASKIBAR 39:30
99. MARTXELO SANTAMARIA: 39:45
113. RAMON ALTUNA 40:23
123. XABIER IRURETA 40:39
129. ENEKO URBIETA 40:54
130. FELIX AIZPURUA 40:56
131. JESUS MARI MARTIN 41:01
145. PATXI BLANCO 41:38
151. JON MANZISIDOR 42:00
157. EÑAUT AIZPURUA 42:35
163. FELIPE AGIRRE 42:58
166. JOSEBA OSA 43:01
173. GRAZIAN GALARRAGA 43:05
184. JOSU GOYOGANA 44:02
186. IÑAKI AIZPURUA 44:07
192. GARIKOITZ MARTIN 44:31
193. ROBERTO FUENTES 44:32
194. JUAN PEDRO ROYO 44:33
195. MARIANO NORIEGA 44:34
198. ANIBAL GUTIERREZ 44:36
199. ALFREDO MARTIKORENA 45:02

210. MIGEL ANGEL YEREGI 45:45
213. RAUL MORENO 45:52
214. IÑIGO ALDAI 45:53
222. JOSE LUIS ALBERDI 46:13
231. JOSE MARIA HIDALGO 46:34
232. PELLO CUEBERIO 46:38
233. IGOR ALBIZU 46:50
240. IKER ALFONSO 47:02
244. FELICIANO ARANBARRI 47:30
245. ANDONI OIANGUREN 47:35
260. MIKEL YEREGI 50:00
261. YONI YEREGI 50:00
263. JOSE RAMON ARRUTI 50:01
267. JOSE INAZIO LANDA 50:16
268. MITXEL AIZPURUA 50:18
269. IBON YEREGI 50:18
270. JUAN LUIS BERISTAIN 50:25
276. JOSE IGNACIO ETXABE 51:15
277. JUAN JOSE UNANUE 51:20
278. XABIN OLAIZOLA 51:23
280. PEDRO ETXABE 51:25
299. OIER EGAÑA ALTUNA 54:08
303. IÑAKI OSTOLAZA 54:27
307. JUAN ANTONIO GUERRA 55:38
310. IMANOL ZUAZOBIDE 1:01:09

EMAKUMEZKOAK

14. ALOÑA AGIRRE EGAÑA 47:42
25. MARIA JOSE AIZPURUA 52:28
27. ENERITZ ZENDOIA 53:59
29. ESTIBALIZ GARCIA 55:19
33. OLATZ VILLANUEVA 1:01:09
34. ANE LARRAÑAGA 1:01:50



Mota
guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, beheha
943 86 27 14

Y
i
N



Y
A
N
G

GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



Goerriak ikusi arren, jendeak gozatu egiten du. Kontraesanaren adibidea.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

PROBINTZIAKO GOBERNUAN PARTE HARTZEA

Aldez aurre egin beharreko zenbait ohar

Hiribilduen jurisdikzioak zabaldu ahala, elkar hartu eta Ermandadeak antolatu zituzten politikan eta ekonomian helburu komunak lortu ahal izateko. Ermandade horiek behar bezalako gobernuaren izan zezaten, sortu zituzten hiribilduek ordenantza bereziak eginda zeuzkaten 1375. urterako, beti ere Erresumako Ordenantza Orokorre jarraiki. Ordenantzok arian-arian hedatzen joan ziren XIV mendearen bukaeran eta XV mendean eta, horrela, Ermandadeak erabat errotu eta sendotu ziren bai erakunde gisa eta baita politikoki ere. Hori izan zen Gipuzkoaren sorburua.

Azkenik, Gipuzkoako hiribildu guztiak ermandade bakar batean bildu ziren. Bertan Alkatetza Nagusiak ere sartu ziren, hau da, batik bat nekazaritzan aritzen ziren hainbat herrigune biltzen zituzten entitateak.

koadernoak, eta handik aurrera Probintziako egitura organiko-politikoa taituzten eta gorpuzten joan zen. Ermandadean barne aldaketak ere izan ziren, antolamendu berezi bat sortarazi zutenak: Batzarrak eratu ziren, eta horiek agintzen zuten Probintziako erakunde guztien gain. Horrela, araudi bakarra onartu zen Probintzia osorako, lurralde guztia arlo juridikoan, politikoan eta administratiboan arautu eta antolatu zuena.

Zumaiaren eginkizuna eta parte hartzea Probintziako gobernuan

XIV. mendean Zumaia ez zuen inolako indar eta eraginik Ermandadearen barruan.

Berandu sortutako hiribildu ia guztiei bezala, ez zitzaion Ermandadearen



Horiek erregeak izendatutako alkatearen jurisdikziopean egoten ziren eta ez zuten hiri-gutunik edo forurik izaten. Dena den, aipatzekoa da Ermandadearen denboraren poderioz gero eta indar gutxiago izan zutela.

1397an sortu zen gaur egun Gipuzkoa izenaz ezagutzen dugun probintzia. 7 barruti-tan banatu zuten, eta barruti bakoitza bertako zenbait hiribilduren artean izendaturiko alkate banaren jurisdikziopean geratu zen. Baina Gipuzkoako Ermandadea XV. mendean finkatu zen berritan. Mende hartan idatzi zuten Ermandadearen bigarren ordenantza

deko Alkatea izendatzeko eskubiderik aitortu. Zentzu honetan, Mutriku, Azpeitia, Azkoitia, Donostia, Getaria, Arrasate, Segura eta Tolosa ziren hiribildu nagusiak. Beraz, hasieran hierarkizazioa izan zen nagusi, Gipuzkoako zazpi barrutietan Ermandadeko alkatea izendatzeko hauteskundeak egiten zirenean argi eta garbi islatzen zen bezala.

Hurrengo mendean ere gauzak bere horretan jarraitu zuten Zumaiari. Batetik, Probintziako partaide izateko eta prokuradoreak aukeratu ahal izateko kontzejuek eta udalek hiribildu maila izan behar

zutela erabaki zen; baina bestetik, sistema "fogerala" (etxe edo sukalde bakoitzeko kopuru jakin bat ordaindu beharra) ezarri zen eta horrek kalte handia egin zion Zumaia, ez zerga gisa izan zuen eraginagatik, politikoki izan zuenagatik baizik. Izan ere, sistema horren arabera, hiribildu bakoitzaren boto kopurua sukalde zergaren bidez Ermandadeko gastu orokorretarako bidaltzen zuen diru kopuruaren parekoa zen. Baina horra zer den benetan harrigarria hiribilduek pribilegiarik gabeko udal taldeei kobratzen zietela zerga hori. Susana Truchuelok adierazten duen bezala, sistema horrek jurisdikziopean herriska gehien zituzten hiribilduei egin zien mesede, hau da, Tolosa, Segura, Ordizia eta Donostiari, laurak Probintziako Batzarretan izugarritzko boterea eskuratu baitzuten. Sukalde zergen arabera botazio sistema horrek hiribilduen artean desberdintasun handiak eragin zituen aginte politikoari zegokionez, eta horrela, XV. mendearen bukaeran sortu ziren Iehen liskar eta auziak. Aipatzekoa da ordurako jurisdikziodun hiribildu guztizkiek Batzarretan ordezkaritza zutela.

1457an Gipuzkoako Iurraldea honela taiutu zen: hiru haranetan banatu zuten eta Batzarrek horietan txandaka egitea erabaki zen. Baina zenbait leku ez zituzten onartu bilerak egiteko gunetzat, hauexek hain zuzen: Alkatetza Nagusiak, Leintz eta Oiartzungo bailarak eta sukalde zerga gutxien biltzen zituzten zazpi hiribilduak. Beraz, XV. mendearen bukaeran, zenbait hiribilduak elkar hartu ondoren eratutako lurralde polizentrikoa zen Gipuzkoa, hein handi batean hierarkizatuta zegoena.

XVI. mendean, gerora Gipuzkoak probintzia gisa ezaugarri izan zituen elementu juridiko-politikoak gogor errotu eta sendotu ziren. Batzar Nagusiak Probintzia osoaren ordezkari bihurtu ziren. Halaber, hiribilduen arteko botere desberdintasunen ondorioz hainbat tirabira eta liskar sortu ziren, Batzarren barne osaera aldaraziz. Testuinguru politiko horrek ere ez zion mesede handirik egin Zumaia.

XVI. mendean sortu ziren hiribilduen arteko lehen enfrontamenduak, Batzarretako botazio sistemaren ondoriozkoak denak. 1505ean hasi eta mende osoa iraun zuten. Gipuzkoako udalbatzak bi taldetan banatu ziren: batetik, sukalde zergen arabera botazio sistemaren aldekoak, eta bestetik, botazio sistema pertsonalaren aldekoak. Zumaia bigarren taldekoa zen, sukalde zergen sistemaren arabera botoen % 1 '51 besterik ez baitzitzaion egokitzen. Horretaz gain, gogor egin zuen lau hiribilduen arteko "txandaketa"ren alde.

Zumaia XVI. mendean ere jarrera hori eutsi zion. Botazio sistema

ez zutenez aldatzen, Batzarretara ez joatea erabaki zuen zenbaitetan, hala nola 1551, 1566, 1581, 1582 eta 1583an.

1615ean, hiribildu nagusien jurisdikziopean zeuden herriskak salbetsita uztea erabaki zen, eta horrela, hiribilduen arteko tirabirak eta sukalde zergen arabera boto sis temak eragiten zituen desberdintasunak bertan behera geratu ziren. Aldaketa horiek bi sorburu izan zituzten: batetik, Gaztelako errege-erreginek horien alde egin zuten eta bestetik, Probintziako gehiengo zenbait hiribildu Batzarretan zuen nagusitasuna gainditzearen alde atera zen. Baina XVIII. mendean ere boto kopurua sukalde zergen arabera izaten jarraitu zuen, eta ez pertsonala. Gipuzkoako kontzejuen artean Batzarretan nagusitasuna lortzeko sortutako lehia eta liskar luze horiek bukatu zirenean, Zumaia Probintziako Batzar Nagusi eta Berezi guztietan hartu zuen parte.

Batzar Nagusiak urtero egiten ziren eta sei egun irauten zuten, nahiz eta batzuetan 11 ere iraun. Ekitaldi politiko handi eta ospetsuak ziren, aita Manuel Larramendiren ustez, antzinako Greziako batzarren antzekoak. Batzarrok txandaka egiten ziren Probintziako hemezortzi udal-tan, tartean Zumaia ere bazela. Gerora, hogeita hiru udal-tan hasi ziren biltzen eta azkenean, 1634tik aurrera, 34tan. Korregidorea izaten zuten beti buru eta, korregidorea ez zegoenean, kasuan kasuko hiribilduko alkatea. Biltzarretara Gipuzkoako udalbatza bakoitzeko ordezkari bana bidaltzen zen. Zumaia gehienetan alkatea joaten zen, eta Udalak ahalorde notariala ematen zion zeregiri horretarako.

Batzar Nagusiez gain, bestelakoak ere egiten ziren Gipuzkoan: Batzar Bereziak. Hurrengo Batzar Nagusirako utz ez zitekeen ezohiko zerbait gertatzen zenean egiten zen Batzar Bereziarako deialdia. Horieta ere Gipuzkoako kontzeju bakoitzeko prokuradore edo ordezkari bana joaten zen. Zumaia alkatea joaten zen ia beti. Udalak ahalorde berezia ematen zion, Batzar Nagusietara joateko ematen zitzaiona bezalakoa.

Batzarrak nonbait biltzen zirenean, bertako eguneroko jarduna eta bizimodua biziki aldatzen ziren beti, eta hala gertatzen zen Zumaian ere. Batzarra bildu baino lehen, den-dena prestatu beharra zegoen eta udaleko diruarekin ordaindu behar izaten ziren gastu guztiak. Batzuetan gainera, bestelako arazoak ere sortzen ziren, adibidez: Zumaian Batzarrek behar bezala burutzeko leku egokirik ez zegoenez, 1729an eraikin eta orube bat erosi zituzten bertan udaletxea eraikitzeko.



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Juan Belmonte, 6



Erribera kalea, 20

Zer da pirateria?

ASPALDIAN EZ DA egunotan beste hitz egin pirateriaz. Guztiok dakigu pirateria betidanik gure artean izan dela, bestela gogoratzea besterik ez dugu Hertzainaken edo beste talderen baten zinta kopiatsu genueneko hura. Artisten artean ere iritzi ezberdinak entzun ditugu: alde batetik Robbie Williams eta Alaska ditugu, biek pirateriaren aldeko jarrera adierazi zutenak, baina gehiengoek kontrako iritzia plazaratu dute. Baina zer da musikaren industria kolokan jarri duena?

Teknologiak aurrerapen handiak izan dituela esateak ez du inor harrituko. Garai batean musika saltzeko erabiltzen ziren formatuak (zintak, binilozko diskoak) analogikoak ziren. Gaur, berriz,

formatu digitala darabilgu (CDak, kasu). Formatu analogikoen kopiak egitea posible da, zintak adibidez, baina kalitatea galdu egiten da eta grabagailuaren arabera hobe ala okerragoa izango da. Formatu digitalean, aldiz, kopiak zehatzak egin ditzakegu, azken batean informazioa 0 eta 1-ez osatutako sekuentzia mordo bat baita. Gainera, ikusiko dugun bezala, hori ez da arrazoi bakarra. Artikulu hau ez da ari kontsumitzaileak egindako kopiez, talde organizatuz baizik.

Legez kanpoko CD-ez hitz egiterakotan bereizketa bat egin beharra dago: CD piratak eta CD-R piratak. Lehenak musika dendatan aurkitzen ditugun CD

originalak bezalakoak dira eta bigarrenak etxeko grabagailuaz grabatzeko aukera eskaintzen digutenak. CD-Rak hasiera batean ez ziren hain erabiliak musika pirateatzeko, baina hau aldatzen joan da, hainbat arrazoi direla medio:

- CD-Rak grabatzeko guneak ugariagoak dira, ezkuta errazagoak eta eraman-garriagoak kopiagailuek duten tamaina txikia dela eta.
- CD piratetan dihardutenak esportatzeko ahalmena ahalbidetzen dieten talde ezagunak pirateatzen dituzte. Horrela, CD-R bidezko piraterian dihardutenek bertako taldeak ere pirateatzen dituzte. Hau da, edozer kopiatzeko gai dira nahi besteko kantitatean.
- CD-Rak besteak baino merkeagoak dira.

Formatu digitalaz ari gara hitz egiten, eta CDa bideetako bat den arren, ezin ahaz daiteke komunikazio biderik zabalena: Internet. Internet bidez CD batek dakarren informazio zehatza igor daiteke, eta horrek disko eta abestien kopiak mundu osoan zehar zabaltzea ahalbidetzen du. Bi eratara egin daiteke hori: puntuz puntuko konexio bitarteko datu transferentzia bitartez eta webguneren batetik.

Puntuz puntuko zerbitzuaren bidezko legez kanpoko kopien hedapena sustatu eta bultzatzen zuten zenbait konpainia egin ziren ezagun. Napster izan zen



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02





lehena eta ezagunena, baina geroago Kazaa, Grokster eta Morpheus bezalakoak agertu ziren. Era honetako zerbitzuen bitartez, 2002ko maiatzean 3 milioi erabiltzailek 500 milioi kopia illegal egiteko aukera izan zutela kalkulatu zen da konexio bakoitzeko.

Deskarga bidezko webguneei dagokionez, 51 herrialdeetan 28.000 webgune pirata eta FTP (file transfer protocol, fitxategiak eskuratzeko protokoloa) musika gune daudela kalkulatu zen da. Zifra guzti hauetan, 2001. urtean sarean eskuragarri zeuden musika fitxategietatik %99 legez kanpoko zen.

Aurreko urtean Estatu Batuetan grabatu zen albumik handiena Linkin Parken "Reanimation" izan zen. Era honetako lanak 10 milioi kopia saltzen ditu Estatu Batuetan; oraingo honetan, ordea, 4 milioi saldu ziren. Aldiz, album hau internet bidez 8 milioi aldiz jatsia izan zen gune bakar batetik.

Arazo hauei aurre egin asmoz Micro-

soft-ek sistema berri bat asmatu duela dio. Dirudienez CDan etiketa moduko informazioa ezartzean datza, eta horren bitartez CDa ordenagailuentzat irakurtezin bihurtzen da. Ez da lehen sistema,



aurretik beste asko izan dira, baina guztiak izan dira era batera edo bestera saihestuak.

Kontuak kontu, pirateria gero eta zabaldutako dago, eta erabiltzaileak kon-

tuan izan beharko lituzke pirateriak dakartzen ondorioak:

1- Arazoa gehien pairatzen duena bertako kultura da. Mundu mailan ezagunak diren musikariek beraiei irabaziak gutxitzea soilik ekarriko du, baina industriak ez du talentu berrietan inbertitu nahiko. Euskal artistentzat egoera zaila bazen, orain askoz gehiago.

2- Gaiztakeria organizatuarekin lotua dago. Kontuan izan behar da legez kanpoko kopiak trafikatzeko ezartzen diren zigorrak heroina edo armekin trafikatzeko baino isun arinagoak direla.

3- Kaltetuena diskografia txikia da. Azken batean ikerkuntzan, hazkuntzan eta lanean arazoak sortzen ditu. Gaur egun bizi garen mundu globalizatu honetan, jabego intelektuala ekonomia-aren hazkunderaren motorra da, eta gurea den bezalako herri batean lanean diharduten diskete txiki horiek ez badira produzitzen dutena defendatzeko gai, hainbat musikariren desagertzea ekarriko du.

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAYA • Tel. 943 861391



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAYA



San Fernando Haraneko emakumeak

LOS ANGELESKO auzo batean, San Fernando Haranean, emakume batzuk beraien bizitza gogoratzen ari dira. Elaine Keener, adin ertaineko sendagile arrakastatsua, bakarrik dago, eta harrituta ere bai, bere maitale berriak ez dielako bere deiei erantzuten. Christinek, pitonisa eta karta botatzaile ezagunak, deitzen dionean, Keener sendagilea orduan hasiko da bere egoeraren benetako hutsunea sumatzen.

Rebecca, berriz, banku zuzendaria da eta harremanak ditu Robertekin, negozio gizon batekin; harreman horretatik haurdun geratu da ustekabea. Abortatzeko asmoa dauka, baina Debbie sendagileak

ondo pentsatzeko esan dio. Hausnarketa horretan, Rebeccak lankide bati, Walterri, galdetzen dio ea bankuko gizonezko lan-gileek fantasia sexualik badaukaten berarengan pentsatuz.

Rose eskola bateko irakaslea da, eta haurrentzako liburuak idazten ditu. Ama ere bada, umea ezkongabetan izana, eta semea, Jay, dagoeneko nerabea da. Amodioa buruan dabilkiela Albert ezagutuko du, gizon nano bat, ospitale batean kontulari dena, auzora bizitzera joan eta bere bizitzan sartuko dena.

Christinek, karta botatzaileak, Lilly maitalea zaindu beharra dauka, larri gaixorik baitago. Biek beraien harremanaren gorabeherak errepasatuko dituzte, eta atsegin hartzen dute oroitzapen epel eta gozoak gogorarazten, Lillyren egoera kaskarrak ahanzarazi egin baitzituen oroitzapen horiek guztiak. Kathy polizi detektibea da, ezkongabea. Carmen izeneko eskolakide baten ustezko suizidioa ikertzen ari da. Ikerketako xehetasun guztiak etxera eramango ditu, Carolekin, bere ahizpaitsu eta zuhurragoarekin, eztabaidatzeko. Carol ederragoa eta bizia goa da, Kathy inoiz izan ez den bezalakoa, eta etengabe ditu hitzorduek gizonezkoekin, bere hitzetan "gizonezkoei itsuekin egi-tea gustatzen zaielako".



Cosas que diría con sólo mirarla
(Things you can tell just by looking at her, 2002 - Estatu Batuak)

Zuzendaria eta gidoi-laria: Rodrigo García
Fotografia: Emmanuel Lubezki
Musika: Edward Shearmur
Aktoreak: Glenn Close, Cameron Diaz, Calista Flockhart, Amy Brenneman, Holly Hunter

Martxoak 6, osteguna, 22:15ean
(Emakumeen eguna)



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneako menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Osabaren bizitzarekin galtzaile. Eta zer?

UNAI ELORRIAGA idazleak, orain gutxi Espainiako Narratiba Saria irabazi duenak, hitzaldia eman zuen Zumaian. Literatur sorkuntzari buruz jardun zuen.

Berezia izan zen. Ezohikoa. Betiko hitzaldien berdintasuna izan ez zuena. Originala. SPraiko tranbia eleberrian agertzen diren istorioetako batzuk nondik atera zituen azaldu zuen, besteak beste. Bere osaba baten bizitzatik hartutako pasarte batzuetan oinarritzen da eleberriaren zati bat. Ba, teorizatzen eta pedagogo lanetan hasi beharrean, Unai osabaren bizitza kontatu zuen.

Osabaren bizitza

Eibarren jaiotakoa, armetan aditua eta aritua zuen osaba. Nazionalek gerra hasi zutenean, soldaduskan zegoen. Hortaz, gerran nazionalekin borrokatzea tokatu zitzaion. Berak, ordea, ihes egin, eta gudarien alde egin zuen gerra. Euskal ejerzitorik ez zegoenez, sortu egin behar. Armetan trebeak zirenak ofizial lanetan jarri zituzten, ejerzitorik ezean ofizialik ere ez zegoelako. Denok dakigu zein izaten den ofizialen lanetako bat, soldaduak frontera bidaltzea. Ba, Unairen osaba hark inor bidali baino lehen berak joan behar zuela erabaki zuen.

Irabazleak eta galtzaileak

Erabaki horrekin irabazletzat hartzen ditugun ofizialen lana laga, eta galtzailatzat ditugun soldaduen aldera pasa zen. Hori zen, hain zuzen, osabaren filosofia: besteei lagunduz, norbera zoriontsu izan. Bizitza guztian horrela egin zuen.

Unairi ere filosofia hori gustatzen zaio. Bere ustez, gaur eguneko gizartearen ezaugarrietako bat irabazleak eta galtzaileak bereiztea da. Berak ez du bereizketa hori egiten, eta eginez gero galtzaile izatea nahiago duela azaldu zuen.


Osabaren kontuekin jarraituz, gerra bukatuta nazionalek beraiek ipinitako bonbak indargabetzen ipini zuten. Zazpi bat urtez jardun zuen horretan. Heriotza oso gertutik bizi izandakoa, beraz. Horregatik, beste gauza guztiei ez zien garrantzia handirik ematen, ez behintzat, zutena baino gehiago. Horrela, orain urte batzuk osaba eta izeba etxean zeudela, zarata batzuk entzun zituzten etxe barruan. Lapurrak zirela pentsatu, eta haiena joan beharrean, lasai asko laga zituzten hauze pentsatuta: "behar dute-lako ariko dituk lapurretan. Laga egingo ziteagu". Eta horrela, lapurrek alde egin zutenean ostu zieten zer izan zen begiratu, eta lasai asko gelditu ziren.

SPraiko tranbia

Osabaren bi pasarte horiek eleberrian agertzen dira. Unai berak aitortu zuenez, liburuko istorioen % 60 amari entzundakoak dira. Benetakoak, baina Unai bere estiloarekin landu eta idatzitakoak. Beti ere, Unairen beste filosofia batean oinarrituta, ontasunean, pertsonen ontasunean.

Hurrengo eleberria

Martxoaren 7an edo aterako dutela esan zuen. Pasarte bat ere irakurri zigun, espageti bati buruzkoa. SPraiko tranbia eta orain aterako duen eleberriaren estiloa antzekoak direla azaldu zuen. Hala ere, bada desberdintasunik bien artean: azkenekoak istorio lineala kontatuko du, SPraiko tranbiak ez bezala.



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

HAURREN ZINEMA

- Hilero haurrentzat zinema udalaren babesean.

IKASTAROA

- PINTURA TAILERRA: Foronda kultur etxean; astelehen eta asteazkenetan 18:30etatik 20:00etara; astearte eta ostegunetan 15:00etatik 16:30etara. Izen ematea Forondan (943861056).
- KONTROL MENTALA: otsailaren 15etik martxoaren 22ra. Larunbatetan 10:30etatik 12:00etara. Dohainik.
- ARDO DASTAKETA. Larunbatetan, martxoaren 15, 22 eta 29ean, Foronda kultur etxean. Matrikula: 10 euro.

INAUTERIA

- Otsailaren 28tik martxoaren 4ra
- Ikusi egitaraua
- **Lehiaketak:** Inauteritako Argazki Lehiaketa Mozorro lehiaketa.
- Informazioa: Foronda kultur

etxea (943-861056)

MENDI ASTEA

- Martxoaren 17tik 20ra Diapositiba emanaldiak 19.30etan
- Foronda kultur etxean
- 17, astelehena Adolfo Madinabeitia "EL CAPITAN"
- 19, asteazkena Xabier Aranguren "ATTURITIK EBRORA"
- Aita Mari zineman
- 18, astearte Alberto Iñurrategi "ANAPURNAREN EKIALDEKO ERTZA- 11 URTE HIMALAYAN"
- 20, osteguna Josune Bereziartu "BLOKETIK BULNESKO NARANJORA"

KORRIKA KULTURALA

- Apirilaren 6an pasatuko da Zumaiaetik, Aek-ak Udalaren laguntzarekin zenbait ekitaldi antolatuko ditu martxoan eta apirilean: korrika txikia,

bertsoak, kontzertoak, antzerkiak, festa... Adi programara!

ERAKUSKETAK

Alondegizaharrean

- Martxoaren 7tik 9ra: Txirrindulari elkartearen argazki erakusketa (25. urteurrena).
- Martxoaren 11etik 23ra: Pintura tailerreko ikasleen lanen salmenta, irabaziak "Kongolagun" proiektuarentzat bideratuko dira.
- Apirilaren 12tik 20ra: Bainikako erakusketa.

IRTEERAK

- Otsailaren 8an Nafarroa aldera irteera.
- Martxoaren 15ean Bizkaiaiko kostaldara irteera.
- Informazioa Turismo Bulegoan (943143396) eta Foronda kultur etxean (943861056)

DEIALDIA

"Santelmoak 2003": antolaketa bilera, martxoaren 19an,

19.00etan udaletxean. Herriko talde eta interesik duzuen guztioi gonbidapen zabala.

MARTXOA

- 2, igandea: Zumaiaiko zikloturisten elkarteak 25. urteurrena ospatzeko 9:30etan ZAKILA BIRA.
- 3, astelehena: TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX.
- 6, osteguna: 22:15etan Aita Marin zineforum saioa: "COSAS QUE DIRÍA CON SOLO MIRARLA" (Rodrigo García).
- 7, ostirala: arratsaldeko 8etan Alondegizaharrean, txirrindularien elkarteak antolatutako HITZALDIA: medikuntza, txirrindularitza eta osasuna.
- 9, igandea: 12.00etan Aita Marin, haur antzerkia ADOS taldearen "KÓKOROKÓ".
- 14, ostirala: 22:00etan antzerkia Aita Mari aretoan, Antzerkiola Imaginarioaren "YURI SAM".
- 15, larunbata: IRTEERA BIZKAIKO KOSTALDERA.

Butróneko gaztelura bisitaldia, San Juan de Gaztelugatxera eta Mundakara. Izen ematea

Turismo bulegoan (943143396) eta Foronda Kultur Etxean (943861056), martxoaren 3tik 12ra.

- 16, igandea: Aita Marin, 17:00etan haur zinema: "EL PLANETA DEL TESORO".
- 17tik 21era: Foronda kultur etxean "MENDI ASTEA".
- 20, osteguna: arratsaldeko 7etan Foronda Kultur etxean, POESIA IRAKURRALDIA Jose Luis Otamendiren eskutik.
- 20, osteguna: 22:15etan Aita Marin zineforum saioa: "11'09"01- 11 DE SEPTIEMBRE".
- 28, ostirala: 22:00etan antzerkia Aita Mari aretoan, "HAU PARADEROA!".
- 30, igandea: Aita Marin, 17:00etan haur zinema: "LAS SUPER NENAS".



Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio beobide 3, tfo. 615 70 25 23

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA
Taberna

juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

JATETXEA
LUBAKI

Baselri Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA

Maite
ileapaindegia

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Ekin
ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK

/elektrizitatea, s.l.

Erribera kalea 18 Beñe TF/fax: 945 143097
20.750 Zumaia ekin@ekin.es

Instalazioak/banatuak ofiziala

CANAL+ Via CANAL DIGITAL

ertz
informatika

tresna digital
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC COMPUTER



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak



Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**

TAILERRA: Santxo auzoa40